



Maskulinitate militarizatuak desarmatzen:

Segurtasuna, Kultura Militarra eta Soldaduak

Joseba Agirre Retolaza

Tutoría / Tutorea
Itziar Mujika Chao

Esta publicación ha recibido financiación de aLankidetzta - Agencia Vasca de Cooperación para el Desarrollo.
Argitalpen honek eLankidetzta - Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentziaren finantziazioa jaso du.



Máster Oficial en Globalización y Desarrollo / Globalizazioa eta Garapena Master Ofiziala

Trabajo Fin de Máster / Master Amaierako Lana
Curso 2021/2022 Ikasturte

Maskulinitate militarizatuak desarmatzen: Segurtasuna, Kultura Militarra eta Soldaduak
Joseba Agirre Retolaza

Tutoría / Tutorea: Itziar Mujika Chao

Hegoa. Trabajos Fin de Máster, n.º 87 / Master Amaierako Lanak, 87. zkia.

Fecha de publicación: noviembre de 2022
Argitalpen data: 2022ko azaroa



Hegoa
Instituto de Estudios sobre Desarrollo y Cooperación Internacional
Nazioarteko Lankidetzta eta Garapenari buruzko Ikasketa Institutua

www.hegoa.ehu.eus
hegoa@ehu.eus

UPV/EHU. Edificio Zubiria Etxea
Lehendakari Agirre Etorbidea, 81
48015 Bilbao
Tel.: (34) 94 601 70 91

UPV/EHU. Biblioteca del Campus de Álava / Arabako Kampuseko Liburutegia
Nieves Cano, 33
01006 Vitoria-Gasteiz
Tel.: (34) 945 01 42 87

UPV/EHU. Carlos Santamaría Zentroa
Plaza Elhuyar, 2
20018 Donostia-San Sebastián
Tel.: (34) 943 01 74 64



Esta obra está bajo una Licencia Creative Commons Reconocimiento-NoComercial-CompartirIgual 4.0 Internacional (CC BY-NC-SA 4.0)

Agiri hau Aitortu-EzKomertziala-PartekatuBerdin 4.0 Nazioartekoa (CC BY-NC-SA 4.0)
Creative Commons-en lizentzian dago.

**Nazioarteko Lankidetzeta eta Garapenari Buruzko
Ikasketa Institutua**

Globalizazioa Eta Garapena Masterra

**MASKULINITATE MILITARIZATUAK DESARMATZEN:
Segurtasuna, Kultura Militarra eta Soldaduak**



Iturria: Soldadu elakrriketatuaren argazkia

Master Amaierako Lana

JOSEBA AGIRRE RETOLAZA

2021/2022

Tutorea: Itziar Mujika Chao

*"Armen artean bizitzea besterik
Biolentziaren erresumetan
Gerrako bidaide gizontasuna
Beruna arrazoi danean"*

AURKIBIDEA

AURKIBIDEA	1
1. SARRERA.....	2
1.1 Aztergaia.....	2
1.2 Justifikazio eta helburuak	2
1.3 Metodologia eta egitura	3
2. SEGURTASUNAREN KONTZEPTUALIZAZIOAK TESTUINGURU GLOBAL BERRIETARA MOLDATZEN	6
2.1 Korrante kritikoak segurtasun paradigma berriak eztabaidatzen	9
2.2 Gerra Berriak eta Babesteko Erantzukizuna.....	15
3. INDAR ARMATUEN MODERNIZAZIOA.....	21
3.1 Emakumearen sarbidea indar armatuetan.....	25
4. KULTURA MILITARRA ETA PATRIARKATUA: Patriarkatua eta militarismoa, militarizazio prozesuen sostengu	30
5. MASKULINITATEAK SOLDADUARI FORMA EMATEN: GORPUTZ ZIBILETIK SOLDADU MILITARIZATURA	35
5.1 Maskulinitateen kontzeptualizazioa	35
5.3 Soldaduaaren heziketa eta kultura militarra	43
5.4 Maskulinitate militarizatuak	47
6. ONDORIOAK	52
7. BIBLIOGRAFIA	54

1. SARRERA

1.1 Aztergaia

Eskuarteetan duzun lanean maskulinitate militarizatuen azterketa sakona burutuko da. Honetarako ingurune militarizatuak ikertuko dira iparralde globaleko indar armatu ofizialetako soldaduetan zentratuz. Aztergai honen barne, arma eta gerrarekin loturiko gizontasun irudi eta praktika estereotipatuak aurkituko ditugu, biolentziaren erabilera botere eta dominazio forma nagusi dutenak.

Orobat, maskulinitate militarizatuak testuinguru zehatz bakoitzean agertzen diren gizontasun militarizatuen estereotipoak biltzen dituzte, aldaketa historiko eta kultural ezberdinen baitan moldatuz doazenak (Eichler, 2014). Horregatik garrantzitsua da aipatzea, maskulinitateez mintzo garenean pluralean egingo dugula, gorpuzten dituzten tankera anitzak kontuan izango direlako.

Gizontasun eredu hauek barneratuta duten ideologia militaristak, armen eta biolentziaren erabilera legitimatuko dute, bai gerra testuinguruan zein gizarte zibilaren egunerokoa taxutuko duten erlazio eta eremu sozial ezberdinetan (Duncanson, 2009).

Kontuan izatekoa da ere, testuinguru gero eta militarizatuago batean egon, gero eta maskulinitate eredu bortitzagoak aurkituko direla. Hau da, bizitzaren militarizazio prozesuek biolentziaren erabilaren legitimazioa hauspotuko dute, gizartearen egunerokotasunean maskulinitate militarizatuen presentzia indartuz.

Hau dela eta, gizartearen emandako biolentziak betikotzeko ezinbesteko elementu bilakatu dira maskulinitate militarizatuak. Azken batean, genero erlazio mailakatuen dominazio praktikak normalizatu eta naturalizatuko dituen adierak direlako.

Zentzu honetan, maskulinitate militarizatuen adierarik bortitzenak egitura militarrengatik kontrolatutako eremuetan aurkituko ditugu, arau militarra eta erlazio forma hierarkikoak barneratuta dituzten espazioetan hain zuzen. Ingurune hauek, indar militar erregular, militar matxino edo paramilitarrengatik kontrolatutako eremuak izan daitezke.

Antolaketa militar hauek antzekotasun ugari gordetzen dituzten arren, indar militar erregularren espazioetan zentratuko gara, indar armatu ofizialetako soldaduek gorpuzten duten maskulinitate militarizatuak aztertuz, betiere bestelako ereduak ikusmiratik kendu gabe.

1.2 Justifikazio eta helburuak

Gerra testuinguruetan ematen diren biolentziazko kasu gehienetan, gizarte zibila agertzen da biktima bezala, eta kontrara soldaduek biktimario edo salbatzaile figura bereganatzen dute dikotomia hierarkiko argi bat sostengatuz. Erlazio honetan, boterea, arma eta

uniforme baten atzean dago ezkutaturik, elementu bi hauek soldaduari ematen dioten identitatean sustraiturik.

Gogoeta honetan ingurune militarizatueta ematen diren biolentziako dinamiketan dauden arazoak ulertzeko betidanik izan dudan grina agertzen da.

Hori dela medio, soldaduek gerra testuinguruan eragiten duten biolentzia genero eredu patriarkalen ondorio zuzena diren hipotesi printzipalarekin hasten naiz aztergaia ikertzen.

Hipotesia frogatzeko, lan honen helburu nagusia maskulinitate militarizatuen “desegitea” burutzea da. Hau da, maskulinitate militarizatuen atzean dagoen eraikuntza soziala perspektiba kritiko batetatik jorratu eta ulertzea. Halaber, ingurune militarizatueta erreproduzitzen diren genero botere erlazioek soldaduen izaeran duten eraginean sakonduz burutu da ikerketa hau.

Horregatik, maskulinitate militarizatuen “desegitearen” helburuaren baitan, soldadua heziko den testuinguruaren analisia egin da: soldadua prestakuntza nolako terminoetan ematen den ulertu eta haien maskulinitateen bilakaera jarraitzea izanik azpigelburu nagusiak.

Honen harira, indar militar ofizialen egitura modernizatuari erreparatu, soldadua bakegintza bezalako eremu berri eta kontraesanekoetara hurbilduz joan dela ikusi dezakegu. Honela, indarkeria eragiteko prestakuntza diren soldaduek, bake prozesu eta laguntza humanitarioetan funtsezko aktore bihurtu dira. Egitate honek maskulinitate militarizatuak birpentsatzeaz gain, eztabaida ugari piztu ditu egitura militaristekin kritiko diren eta honen defendatzaile direnen artean.

Hau gutxi balitz, egungo testuinguru global berrian emandako aldaketa sozial eta politikoen baitan, maskulinitate militarizatuak transformatu joan dira, haien inguruan batutako botere eta pribilegioak hautematea askotan zeregin zaila izanik. Botere metaketa hau maskulinitate militarizatu hegemonikoen baitan antolatuko da zapalkuntza dinamika ezberdinak ezkutatu. Honek ez du bakarrik soldaduen identitatea moldatuko, politikari, enpresaburu eta gizarte aktore boteretsu ezberdinetan sustraitutako den elementua da ere (Theidon, 2009).

1.3 Metodologia eta egitura

Ikerketa kualitatibo honetan, genero ikuspegia erabili da maskulinitate militarizatuak aztertu eta indar armatuen baitan dagoen izate militaristaren barrunbeak ulertzeko.

Maskulinitate militarizatuen inguruko ikerketa burutzeak, generoa testuinguru militarren analisietan txertatzea ahalbidetu dit. Oro har, tradizionalki gerrak aztertzeko saiakeretan genero faktorea ahazturik gelditu den elementua izan da, eta honek gerra testuinguru inguruko lanketen irismen analitiko mugatua izatea suposatu du (Duriesmith, 2016).

Genero ikuspegia erreminta kritiko bezala ezarriz gizartean ematen diren egiturazko indarkeria nagusien identifikazioa errazten da. Funtsean, feminismo akademikoa, ezagutza enpiriko zein teorikoa produzituko duen eremuetan bereiziko da, gizon eta emakume dikotomiak eragindako ezberdintasunak mantentzen dituzten baldintzak eraldatzeko proposamenak landuz eta eraldaketa soziala bultzatuz. Era berean, emakumeen eta gainontzeko identitate disidenteen egoera ulertu, karakterizatu eta kontzeptualizatuko du (Bonet eta Martí, 2021).

Lanak lehen eta bigarren mailako informazio iturriak batzen ditu. Bibliografia errebisio sakona alde batetik, eta Espainiako indar armatuetan soldaduntzan ibili den eta Iraken jardun duen soldadu batekin elkarrizketa bestetik.

Errebisio bibliografikori dagokionez sakonezko irakurketak egitea ezinbestekoa izan da, eta honetarako bigarren mailako informazio iturri ezberdinak erabili dira: Informeak, liburuak, notiziak, elkarrizketak eta ikusentzunezko materialena hain zuzen. Honez gain, literaturaren gehiengoa segurtasun ikasketa kritikoen autore eta erakunde ezberdinen eskutik eman dela azpimarratu behar da.

Sakoneko errebisioak, aurretiaz ezagutzen ez nituen esparru akademikoekin topo egitera eramanez eta ezinbestekoak izan dira aztergaiaren ezagutza sendoa bat garatzeko. Honetarako, zenbait autoreen erreferentziak aipatu nahiko nituzke, ikerketaren prozesu luzean lanaren zutabe printzipalak kontsideratzen ditudanak. Lehendabizi, genero ikerketa burutzeko izan dudana autore erreferentea: Raewyn Connell, “maskulinitate hegemonikoaren” kontzeptuan sakondu eta hau erreminta analitiko bezala erabiltzeko jakintza eskaini didana (Connell, 2015). Eta bigarrenaz, David Duriesmith kontestu militarizatuak soldaduen “maskulinitate hegemonikoa” erabiliz landu duen autorea (beste batzuen artean) (Duriesmith, 2016).

Bizitza eredu militarizatuen testigantzak batzen dituzten lanak oso garrantzitsuak izan dira ikerketa prozesu hontan. Azken batean, ingurune militarizatu eta maskulinitate militarizatuez ikasitakoa pratikan nola funtzionatzen duen ikusteko zuzeneko aukera izan delako. Hauen artean, “*La Sierra*” dokumentala nabarmendu nahiko nuke (Martínez eta Dalton, 2004), aztergaietik zertxobait urruntzen den arren, maskulinitate eta feminitate militarizatuen adierak oso argi erakusten dituen iturria delako.

Espainiako indar armatuen soldaduari eginiko elkarrizketari dagokionez, aurretiaz prestatutako gidoi batekin eginiko elkarrizketa semi egituratua da. Soldadua, 30 urteko gaztea, erdi-mailako klasean hezi izan den eta soldadutzaren bidea egitura militarrengandik duen miresmenagatik hautatu duen banakakoa da. Honez gain, gaztelaniaz eginiko ordubeteko solasaldia izan da, telefonoz grabatu dena geroago euskarara transkribatzeko. Elkarrizketatuaren nahia errespetatuz, soldaduaren anonimotasuna gorde da.

Zentzu honetan, ikerketa batean elkarrizketa bakar batek duen irismen analitiko mugatua kontuan izanik, bakarra egitea hasieratik erabaki nuen lanaren hedadura zela eta. Hala ere, elkarrizketak lana aberastu, eta niri, pertsonalki balio erantsi potolo bat eskaintzen

didala uste dut. Azken batean, posizio analitiko batetatik soldadutzako bizipenak lehen pertsonan entzun eta biltzeko aukera izan delako.

Ikerketaren muinezko iturriak kontuan izanik, lana hiru atal nagusitan banatzen da eta ikerketaren prozesu pertsonala erakusten du. Zentzu honetan, errebisio bibliografiko sakona burutu dut esparru ezberdinak ukituz, eta ibilbide argi bat markatuz; ikuspegi orokorretik partikularitasunera igarotzen, segurtasunaren arloko analisiak emandako ikuspegia aurkeztu, soldaduen maskulinitateen eraikuntzan lurreratzeko.

Lehen atalak segurtasun politiken analisia jorratzen du. Lana atal honekin hastearren arrazoa ikuspegi orkorra ongi ulertzea beharrezkoa ikusten dudalako da. Hemen, mundu mailan segurtasuna antzeman eta ulertzeko eman diren aldaketa epistemologiko eta ontologiko ezberdinak aztertuko dira. Zentzu honetan, garapen teoriko modernoan aurretik korrante tradizionalak aztertzea erabaki dut aztergaiaren zimendu oso eta sendo bat eskeintzen digulako, geroago lanaren izaera kritikoari helduz segurtasun teoria kritikoeitan zentratzeko.

Bigarren atalean aldiz, indar armatuak aztertzen dira izan duten modernizazio prozesua ikusiz. Honekin, ingurune militarretan indartzen diren sozializazio ereduak ikusiko dira, hurrengo atalean kultura militarren eta patriarkatuaren arteko erlazioa analizatuz sakonduko direnak. Honela, ideologia militaristak genero erlazio desigualak nola sustatzen dituen ikusiko dugu.

Amaitzeko azken atalak, indar armatuek nazioartean duten pisua kontuan izanda, hauen giharra diren soldaduen jokaera ulertzera eramango gaitu. Honetarako, soldaduen maskulinitate militarizatuak sakonean aztertuko dira, heziketa militarrean eta iparralde globaleko indar armatuen soldaduetan erreparatuz.

Baliteke hasiera batean esparru honetan eskarmentu handia duen irakurleari egitura honek bere ikuskerarekin talka egitea, baina aurretiaz esan bezala ikerketa prozesu pertsonal baten erakusgarri da; lanaren lehen atalak eskaini didan ikuspegi orokor gabe, ezin izango nuelako atera ditudan ondorioak atera.

2. SEGURTASUNAREN KONTZEPTUALIZAZIOAK TESTUINGURU GLOBAL BERRIETARA MOLDATZEN

Sarreran aipatu bezala lanari hasiera emateko segurtasun kontzeptualizazio nagusien errepeaso orokor bat burutuko da. Orobat, segurtasun teoria ezberdinak eguneratuz joan diren heinean, nazioarteko segurtasun politikak mundu globalizatuko egoera berriei moldatu dira, defentsa politiketan zuzenki eraginez. Zentzu honetan, garapen teoriko hauek ulertzea ezinbestekoa da soldaduen maskulinitate militarizatuen bilakaerak ulertzeko.

Segurtasuna nazioarteko sisteman nagusi diren aktore eta faktore ezberdinen nondik norakoak azaldu eta ulertzeko ezinbesteko kontzeptua da. Hau Westfaliako bakearen ondorioz eratuko diren estatu modernoek baitan jaio zen, eta honen definizioa oso era ezberdinean aurkituko da irudikatua korrante zientifikoaren edo posizionamendu politikoaren arabera. Horregatik, Nazioarteko Harremanen arloko kontzeptu eztabaidatu eta anbiguenetarikoa izatea lortu du (Baldwin, 1997).

Segurtasuna kontzeptualizatzea ez da beharizan metodologiko bat bakarrik izango, ariketa epistemologiko (nola eraikitzen da jakintza), eta ontologiko bat (nola eraikitzen dute mundua nazioarteko aktoreek) da ere (Tilly, 1995). Hau, analisi eta erabaki hartze politikoetan elementu zentrala dela kontuan izanik, buruhauste konstantea bilakatu da pentsalari zein politikari ezberdinen eztabaidetan.

Nazioarteko sistema tradizionalki egitura estatu zentrikoa izan da; estatu nazioen sorkuntzarekin batera errotzen hasiko den egitura. Horregatik, estatuaz gaindiko bestelako aktore batzuk existitu arren, historikoki nazioarteko sistemaren aktore esanguratsuen estatua izan dela berretsi daiteke, eta horrela hauteman dute Nazioarteko Harremanetako korrante tradizionalak¹.

Hala nola, eskola errealistak nazioarteko sistema, eredu anarkiko batengatik bereizita dagoela azpimarratzen du, parte bakoitzak bere interesak soilik defendatzea interesatzen zaion egitura batengatik. Errealismoak planteaturiko testuinguru honetan gerra izango da sistemaren berezko ezaugarri, eta botere militarra estatuen indarraren erakusle (Barbé, 1987). Zentzu honetan, nazioarteko sistemaren funtzionamenduaren ardatz bezala nabarmentzen du segurtasuna, azken hau nazioarteko sistemaren aktore ezberdinen erlazioetan emandako ekintzen eragile nagusi bezala hautemanen (Buzan, 1995).

Korrante honen arabera nazioarteko sistema, modelo ekonomikoaren “esku ikusezinen” antzera, estatuen arteko interesen arabera erregulatuz joango da estatuek haien helburuak betetzeko bideratu beharko dituzten ekintzen kostu-irabazi balantza baten bidez. Honela, teoria errealistaren aburuz estatuen interesek segurtasun politikak egituratuko dituzte;

¹ Errealismoa da Nazioarteko Harremanen eskola tradizional nagusia, Westfaliako bake akordioek ostean sortutako estatu modernoek inguruan eraikiko den korrante teorikoa da. XX. mendean, errealismoaren hegemonia lehiatuz, korrante liberalak indarra hartuko du bai akademian zein nazioarteko politiketan.

subiranotasuna eta ordena ekonomikoa izanik interes nagusiak, eta indar militarra estatuen arteko lehia orekatuko duen disuasio elementu printzipala (Montero, 2020).

Bederen, estatuen interesen defendatzaile zuzen eta biolentzia eragile legitimo bezala aurkezten dira indar armatuak. Egitate honek², nazioartean estatuen arteko interesen indar korrelazioen balantzan botere militarrek duen zama hautematera eramaten gaitu (Moller, 2000). Arrazoi honengatik, segurtasuna ezinbestean alor militarrekin loturik aurkitzen da (bestelako faktore batzuen artean) (Buzan, 1995).

Korronte tradizionalekin jarraituz eskola liberala aurkitzen da. Korronte honek, indar armatuen zentraltasuna nabarmentzen du nazioarteko ezegonkortasunen eta segurtasunaren kontrolean; indar armatuenganako kontrol zibil eta demokratikoa, estatuen kontrol militarra baino komenigarriagoa dela azpimarratuz (De Vergottini, 1982). Hau da, demokrazia liberala estatu autoritarioak baino komenigarriagoak izango dira nazioarteko sistemaren oreka bermatzeko.

Teorilari liberal nagusien artean Huntington eta Morris Janowitz dira garrantzitsuenak. Huntingtonek estatu demokratikoaren izateko arrazoi zentrala gizabanakoaren eskubide eta askatasuna defendatzea dela adieraziko du (Burk, 2002). Bi autore hauek eremu militarra, eremu zibil eta politikoengandik independentiak direla berrestuko dutelarik.

Ikuspegi tradizional hauek indar handia izan dute XX. mendean zehar emandako nazioarteko testuinguru bipolarrean, mundua bi bloke nagusitan zatituta zegoenean hain zuzen; Sobiatar Batasunari alineatutako herrialde sozialistak; eta Estatu Batuei alineatutako herrialde kapitalistak.

Hala ere bestelako eskola eta ikuspegi batzuekin lehiatu behar izan dute Nazioarteko Harremanen eta segurtasun politiken hegemoniaren baitan. Testuinguru berriek planteaturiko egoerek korronte tradizionalen analisiek egoera berri hau azaltzeko zituen mugak azalerazi zituen, begirada ezberdinetatik etorritako azalpenen beharra agerian utziz³. Honela, garai berriek eraldatze prozesu bat eragin zuten segurtasun konzeptualizazioen inguruan emandako kontestu sozial eta politiko global berriei moldatuz.

Nazioartean gutxika aktore eta faktore ezberdinak agertuz zijoazen heinean, paradigma globala aldatuko zen errealitate berriei erantzuna emateko teoriak azalduz. 1970. hamarkadan Gerra Hotzaren tentsioak baretu eta munduak globalizazio prozesuaren lehen zertzeladak bizi zituen. Tradizionalki nazioarteko sistemarentzako mehatxu elementu nagusia ziren estatuen arteko gatazka armatu zuzenak mehatxuen bigarren plano batera

² Indar armatuak estatu-nazioen interesak defendatu izan ditu lurralde politiko baten mugen barne zein kanpo. Honela, kanpoko estatuak mehatxu zentral ziren testuinguru tradizionalen, segurtasun elementu erreferente nagusia izango da estatua; lurraldearen defentsa eta subiranotasuna oinarri.

³ “Indar kamisa westfaliar” teoria tradizionalak testuinguru berria ulertzeko dituzten muga konzeptualak deskribatzeko eraibiliko den terminoa da (Buzan eta Little 2000).

baztertu ziren, eta gobernuz kanpoko erakunde eta aktore transnazionalen hedatzedea indartu zen globalizazio prozesuaren baitan. Ondorioz botere militarren zentraltasuna mobilizatu zen. Hau da segurtasun arazoak indar militarren ingurutik aldendu ziren dimentsio handiago bat hartuz. Azken batean, aktore eta faktore anitzez konektatututako errealitate baten murgildu zelako nazioartea.

Faktore guzti hauek mundu interkonektatu eta konplexu bat eratu zuten, estatuen arteko interesen mugak gero eta finagoak izanik. Honek nazioarteko antolakuntza eredu deszentralizatugoa bat eraikitzeke premia azaldu zuen (Fazio Vengoa, 2002).

Modu honetara, segurtasun kontzeptualizazio tradizionalak testuinguru global berrira moldatu ziren estatuaz gaindiko aktoreak kontuan zituzten teoria berriak plazaratuz. Teoria tradizional liberal eta errealistei “neo” aurrizkia aplikatu zitzaizen korrante berri huez adierazteko.

Korrante tradizionalen inguruan eraikitako enfoke teoriko berriek estatua nazioarteko sistemaren aktore zentral bezala hauteman jarraitu zuten, segurtasunaren erreferente nagusi. Zentzu honetan, korrante neoliberalak estatuen arteko kooperazioa proposatu zuten nazioarteko tentsio eta ezegonkortasunak baretzeko asmotan.

Gauzak honela, behin Gerra Hotza amaituta sistema kapitalistaren eta eredu neoliberalaren hedapena azkartu zen globalizazio prozesua hauspotuz. Honez gain, 2001eko irailaren 11ko gertakariak beste inflexio puntu bat suposatu zuten mendebaldeko gizartearen mundu ikuskeran. Gerra Hotzaren amaierarekin gertatu zen antzera, egungo segurtasun kontzeptua ulertzeko ezinbestekoa da gertaera bi hauek sortutako aztarnak kontuan izatea. Hori horrela, iparralde globaleko potentzien aliantzaren muina diren Amerikako Estatu Batuek jasan zituzten erasoek, guztiz aldatuko du gizarteak egun segurtasunari buruz duen pertzepzio eta ikuskera.

Gertaera honetako xehetasunetan sakondu gabe eta segurtasun paradigmaren emandako aldaketetan zentratuz, horrez geroztik segurtasunaren globalizazio eta transnazionalizazio prozesua asko indartu zen. Segurtasuneko aferak herrialdeen mugetatik at kokatuko ziren, segurtasun globalak justifikatutako eguneroko bizitzako zaintza kontrol neurriak sustatuz. Honela, politika baxuko alor bezala kontsideratutako gaiak lehen mailako kezka bihurtu ziren: Azpiegituren, energiaren, ekonomiaren, gizartearen eta kulturaren sekutiritzazio⁴ prozesu progresiboa emanez (Pullinger, 2007)⁵.

Aldaketa guzti hauen baitan, mehatxuen jatorri eta irudiak forma berriak hartu zituzten: Talde armatu ilegalen loratzea, estatuen arteko mugen arazoak, gatazka irregular eta erregularrak, indarkeria politiko eta nazioarteko terrorismoa, klima arazo eta hondamendi

⁴ Segurtasun kontzeptualizazio kritikoen azpiatalean ikusiko da kontzeptu honen lanketa.

⁵ Informazio gehiagorako ikusi: Estatu Batuetako “Homeland security” Solana, J. (2004). A secure Europe in a better world-The European security strategy. Civilian perspective or security strategy? European development policy confronting new challenges in foreign and security policy.

naturalak, immigrazio irregularra, estraktibismoa, narkotrafikoa, pobrezia, eraso zibernetikoak etab. Mehatxu guzti hauek segurtasunaren agenda hedatu zuten.

Honela, agertoki globalizatuaren plazaratzeak, mundua ikusi eta bizitzeko molde zaharrak apurtu zituen, estatuen arteko gatazkak azaldu eta kudeatzeko erabilitako marko teoriko eta hizkera tradizionalak zaharkituta utziz, eta segurtasuna logika estatuzentrikotik haratago eramanez (Cardona, 2001).

Honen eraginez, eraldaketa konstatei lotutako errealitate batekin aurkitu zen gizartea, hau ulertzea gero eta zailagoa suertatuz; anbiguitasun eta kontraesanaz inguraturik, ziurgabetasuna bilakatu zen testuinguru globalaren “gobernadore” berri (Rosenau, 2009).

2.1 Korronte kritikoak segurtasun paradigma berriak eztabaidatzen

Ikusi bezala, errealitate aldakor berriaren aurrean marko analitiko tradizionalak oso mugatuak ikusi ziren. Horregatik korronte kritikoek ekarpenak ezinbestekoak dira nazioarteko joerak ulertzeko. Atal honek, Nazioarteko Harremanetako korronte kritikoek segurtasuna nola ikusten duten irudikatuko da. Horretarako, ikuspegi kritiko garrantzitsuenen ekarpen nagusiak azalduko dira labur, feminismoari espazio handiagoa emanez, ikerketaren ardatz epistemologiko bezala.

Begirada kritikoek, nazioarteko botere egiturak seinalatuko dituzte eta mundu mailako arazo eta mehatxuen izaerei ikuspegi alternatibo bat emango die. Honela, egun ditugun mehatxu eta arazoen atzean dauden motibazio eta interesak aztertuko dira, nazioartean eta herrialde ezberdinetan piztutako arazo eta gatazkak ez dira berez ematen kontuan izanik. Azken batean, egoera hauetara heltzeko zenbait faktorek gurutzatutako errealitateak aurkituko dira, eta korronte kritikoek, bakoitza bere begirada partikularrarekin, faktore hauen arteko erlazio eta ondorioak ezagutzera hurbilduko gaituzte.

Korronte Konstruktibista

Korronte konstruktibistak, segurtasuna eraikuntza sozial eta intersubjetiboa bezala hautematen du. Ikuspegi honen aburuz, mehatxuak ez dira naturalki emango, hauek izaera intersubjetiboa duten diskurtso eta errelatoen bitartez produzitutako eraikuntza sozialak izango baitira. Arazo bat mehatxu bezala aurkezteko ezinbestekoa izango da boterea sostengatzen duten aktore anitzen elkarlana: Komunikabideez, politikariez, botere ekonomikoaz etab).

Boterea sostengatuko duen elkarlan honen prozesuaren teorizazio “seguritizazio” bezala ezagutuko da. Kontzeptu hau da korronte konstruktibistaren ekarpen nagusia. Seguritizazioa nola, norengandik eta norantza bideratzen den aztertuko delarik. Honela, teoria honen aplikazioak, prozesu seguritizatzaileen atzean aurkitzen diren interesak eta

interes taldeak kontuan izango ditu, konstestuaeren ikuspegi kritiko eta zabalago bat barneratuz (Taureck, 2006).

Sekuritizazioa beraz, interes politiko zehatz batzuei erantzunez bideraturiko mehatxuen eraikuntza da. Honenbestez, arazo bat modu interesatuan interes jakin batzuen mesede segurtasun agendan barneratzen denean, sekuritizazio prozesu bat bideratuko da. Horregatik, sekuritizazio prozesu zehatz bat gauzatzeko atzetik dauden interes taldeak kontuan izan beharko dira (Taureck, 2006). Halaber, segurtasun mehatxu eta arazoak interpretazio kontuak dira, eta hauek epistemologia ezberdinen adituen arteko eztabaida sakonak pizten ditu (Krause eta Williams, 1996: 236).

Ole Waeverrek, beste batzuen artean, arazoen sekuritizazio eta desekuritizazio prozesuen analisisian zentratzearen premia azpimarratzen du, segurtasunaren arloko diskurtsoek duten garrantzia goraiatuz. Halaber, segurtasunaren agendan barneraturiko mehatxuetan dauden motibazio politikoak identifikatzea ezinbesteko faktorea izango da Nazioarteko Harremanen inguruko ikertzaile kritikoentzako (Waever, 1993).

Honen harira, eskola konstruktibistaren erreferente nagusi den Barry Buzanen lanen eskutik, mehatxuen antolaketa bat egiten da eremu ezberdinetan banatuz: Mehatxuak dimentsio militar, ekonomiko, eta ekologikoetan sailkatuko ditu (Buzan, 1991)⁶. Testuinguru honetan, segurtasunak elkar loturik dauden faktore ezberdinak bereganatzen ditu dimentsio sakonago bat hartuz. Hemen, testuinguru politikoa, ekonomia, gizartea, politika militarra, segurtasuna definituko dituzten elementuak barneratuko dira (Buzan, Wæver eta Wilde, 1998).

Teoria Kritikoa

Teoria kritikoak testuinguru zehatz baetan egituratutako desberdintasun sozialen transformaketa bilatzen du. Korrante honen ikerketetan teoria eta praxia era bateratuan ematen da⁷. Hau da, gizarteko arazo ezberdinen naturalizazioa gaitzetsi eta arazoen erroetara hurbiltzea du helburu. Modu honetara, dominaziozko testuinguru eta egituren analisi kritikoen bitartez, pobrezia, biolentzia eta zapalkuntza politikoa seinalatuko dituzte (Pérez de Armiño, 2012).

⁶ Mehatxu militarren (lurralde-hedapena, inbasioa, indarraren erabilera, gobernu-aldaketa, ezezonkortasuna, segurtasuneko dilema klasikoak), mehatxu ekonomikoen (inportazioen, prezioen manipulazioaren, espekulazio ekonomikoa zorra ez betetzea, dibisen kontrola, murrizketak etab.) eta mehatxu ekologikoak bereizik dira; estatuaren oinarri “fisikoaren” kaltearekin zerikusia dutenak (Buzan, 1991).

⁷ Eskola honek, Antonio Gramsci teoriarari marxistak teoria eta praxiaren arteko erlazioari buruz dituen ideiak hartzen ditu bere gain; hau da, teoria kritikoaren ikuspegitik ikertzen hari diren ikerlariek objektuarekiko independenteak izan behar ez direla ulertuko dute, eta kontrara ikertzailearen papera emantzipazio eta eraldaketarako prozesuaren eragile aktibo bezala hautemango da; oro har eragile sozialen eta ahotsik eta botererik gabeko sektoreen segurtasunerako borroka lagunduko dira (Canclini, 1984).

Ikuspegi honek egindako ekarpenen bultzadaz, alor militarretatik haratago hedatzen diren segurtasun arazoak identifikatzean eta nazioarteko segurtasun agendaren hedatzean zerikusi handia izan du, gizabanakoa segurtasun aferaren zentruan jarriz.

Ikuspegi hau kontuan hartuz, segurtasuna ez da gizabanakoaren biziratuean zentratu behar, bere ongizatearen hobetzean baizik. Honela, Nazioarteko Harremanen baitan emandako kontzeptualizazio tradizionalak gogor kritikatzeko dituzten segurtasun ikuspegi estatuzentrikoa egungo testuinguruan zentzurik ez duela adieraziz. Argudio honen arrazoitze zentrala, egungo gatazkak gehienbatean barne arazoetan zentratzen direla da. Honez gain, nazioartean emandako biolentzia forma organizatuek ordena kapitalistaren kudeaketa eta babesa bermatzen dutela salatuko da (Mann, 1994). Eta estatuak ez dira giza eskubideen bermatzaile bezala ikusiko, kontrara, gatazka armatu modernoak hizpide hartuz, gatazka armatuan murgilduta dagoen estatua gizartearen eskubideak babesteko gai ez dela salatuko dute. Eta estatua, gizarteak zuzenean pairatuko dituen egiturazko biolentzien eragile bilakatuko da kasu askotan.

Korronte Posestrukturalista

Korronte postestrukturalistak ikuspegi kritiko guztien antzera, teoria errealistak aurkezturiko kontzeptualizazioak gogor kritikatu dituen korrontea da. Honela, ordena soziala betiketuko duen ezagutza produzituko dutela gaitzetsiko dio.

Ikuspegi honek, diskurtsoetan aurkitzen diren kontzeptuen deseraikuntza burutuz nazioartean onartutako errelato ezberdinak zalantzan jartzen ditu: Garapena edo segurtasuna esaterako (Pérez de Armiño, 2012). Hontaz, korronte honen aburuz arazo edo gatazka zehatz bat, errealitatearen interpretazio anitzen multzoa dira. Honenbestez, ez dira egi finkorik existituko errealitatearen interpretazio anitzak baizik.

Hau kontuan izanik, egi absoluto kontsideratutako kontzeptu edo egitate unibertsalak zalantzan jartzen dira konstanteki, hauen inguruan biltzen den ezagutza boterearen eta diskurtso dominantearen eraikuntza bezala kontsideratuz. Beraz, egitate unibertsalak momentu historiko eta soziopolitiko zehatz batetan onartutako ideien gaitzetsitza dira. Emakumearen kontzeptua esaterako -gizonen posizio dominantetik definitutako errelatoa delarik- garai modernoetara heldu arte gizarte patriarkal tradizional ezberdinek gizon osatugabe bezala definitzen zuten.

Korronte postestrukturalistak, segurtasun eta Nazioarteko Harremanak aztertzeke biopolitika eta bioboterearen kontzeptu foucaultiarrek erabiltzen dituzten “Biopolitika Globalaren” kontzeptuaren baitan. Honela, “Biopolitika Globala” bizitzaren kudeaketa mundial bezala definitzen da, entitate transnazional ezberdinek nazioarteko biztanleria kontrolatzeko burututako politika bezala hain zuzen. Beste era batera esanda, nazioarte mailan, biztanleria globala mehatxatzen dituen arazo edo faktorenganako gobernatza estrategiak dira (Cornago, 2013).

Biopolitika Globalaren kontzeptuaren baitan gobernantza neoliberalak aurkitzen da, ekonomia eta politikaren liberalazio prozesu mundiala bultzatuko duelarik. Hemen, ezinbestekoa izango da zenbait aktore, arauen eta egituren elkarlana ematea. Beraz, nazioarteko testuinguru honetan aktore ezberdinak aurkitzen dira: Gobernu kanpoko erakundeak, Nazioarteko Diru Funtsa, Nazio Batuen Erakundea, Munduko Bankua, komunikabideak, gobernuak etab. Aktore hauek sostengatuko duten botere hegemoniko globalaren gobernantza salatzen dute ikerketa postestrukturalistek; botere hierarkiak nola erreproduzitzen diren aztertuz eta aipatutako nazioarteko erakundeak kritikaren zentruan jarri.

Gizartearen kontrol politikak, biopolitika global bezala definitzen ditu Mark Duffieldek, Copenagheko eskola eta korrante kritikoaren erreferentzia nagusietakoa dena (Pérez de Armiño, 2012). Duffield mundu mailako kontrol eta erregulazioa burutzen duen gobernantza liberal eta hegemoniko batez mintzo da, non segurtasun eta garapenaren arloak elkar erlazionatu diren. Segurtasuna eta garapenaren erlazio interesatua egiten dela salatzen du: Azpigarapena, pobrezia eta huts egindako estatuen bezalako alorrak, iparralde globaleko herrialdeengatik segurtasun agendan era interesatuan barneratzen direla azalduz (Duffield, 2007 en Rodrigues, 2013).

Logika honetan, segurtasuna gobernantza globalaren tresna bezala jokatuko du, praktika inperialen legitimatzaile bilakatuz. Honela, segurtasunaren interpretazio subjektiboek hegoalde globaleko herrialdeen disziplinatzea bilatzen dute; garapen programak, maileguak, merkataritza zigorrak etab diziplina erraminta bezala funtzionatuko dutelarik. Hontaz ikuspegi honen aburuz, nazioarteko garapen eta laguntza humanitarioko prozesuek dominazio dinamikak barneratzen dituzte.

Korrante postkolonialak

Ikuspegi postkolonialaren hizpide nagusia hegoalde globaleko herriei ahotsa ematea da. Helburu hau ikerketa esparru ezberdinetatik bideratu dute. Hegoalde globaleko herrialdeek pairatzen dituzten segurtasun gabeziak salatuz alde batetik. Eta bestetik Nazioarteko Harremanen ikerketa esparru ezberdinek duten izaera eurozentrikoa kritikatu. Honela, nazioartean ematen diren praktikak kolonialak mahaiaren gainean jarri dituzte, praktika hauek eragiten duten segurtasun arazo ezberdinak salatuz.

Aitzik, eskola postkolonialak nazioarteko sistemaren ipar-hego egituraren baitan ematen den dominaziozko erlazio politiko bai ekonomikoa gogor kritikatu du. Teoria honen autore garrantzitsuenetarikoa bat Edward Said da, *Orientalism* liburuarekin nazioarteko sistemaren funtzionamendua kritikatu duena (Said, 2016 en Pérez de Armiño, 2012). Honek mendebaldeko herrialdeen nagusitasunean zentratzen du bere ikerketa; barbaro eta mendeko gizatalde bezala hautemango diren herrialde orientalen gutxiagotasunean egituratuko den zibilizazioen arteko hierarkiaren eraikuntza salatuz. “Bestetasunaren” kontzeptua ezinbestekoa da hau ulertzeko, hegoaldeko herriengan sortzen den irudia bestetasunean eraikia delarik, “beste” mendeko bezala.

Abu-Lughod iparralde globaleko herrialdeen hegoalde globaleko herrialdeetan burututako “gurutzada moral” ezberdinak aztertzen ditu. Giza eskubideak eta emakumeen nazioarteko eskubideak, ekialdeko gerren legitimazio bezala nola erabiliak izan diren aztertzen ditu zehazki (Abu-Lughod, 1989 en Hobson, 2007). Bere esanetan, esku-hartze militarrek moraltasun faltsu batengatik daude legitimaturik iparralde globaleko gizartean. Honela, hegoaldeko herrialdeek pairatzen dituzten segurtasun arazoak kontuan izan gabe, herrilade hauetan errotutako arazo ezberdinen erantzukizuna tokiko gizarteetan era interesatuan kokatzen dela salatzen du. Testuinguru hauetan emandako segurtasun arazoen analisisetan ez dira pobrezia eta kapitalismo globalak duten eragina kontuan izaten (Rodríguez, 2013).

Ikuspuntu Feministak

Zalantzarik gabe korrante kritikoen artean feminismoa da teorizazio klasikoak zalantzan jarri eta irmoki aurre egin dien mugimendu nagusienetarikoa. Ikuspegi feministek patriarkatuaren egitura eta sexu banaketan sortutako biolentzia ezberdinak seinalatzen ditu. Esparru hauek Nazioarteko Harremanetan eta segurtasun arloan ahaztuak izan direla salatuko da. Arrazoi honengatik, gogor kritikatuko dira segurtasun kontzeptualizazio klasikoak, hauen joera estatuzentrista ezinbestean patriarkatuarekin loturik dagoela azpimarratuz.

Korrante feministak eginiko ekarpenak segurtasunaren ikerketen marko analitikoak hedatzera lagundu duen arren, eztabaidaz beteriko korrante plural eta anitza da. Pluraltasun honetan adostasun nagusia Nazioarteko Harremanak esparru neutral, objektibo eta unibertsal izatearen egitatearen aurreko ukazioa da. Hain zuzen, Ann Ticknerrek errealismoa kritikaren zentruan jartzen du “nazioarteko politikak gizonen mundua direla” berretsiz (Vazquez, 2012)⁸.

Feminismoak, nazioarteko politiken ardatz den segurtasun nazionalaren kontzeptua gogor kritikatzeko emakumearen eta genero faktorea guztiz alboratuta izan dela salatuz eta segurtasunaren izaera multidimentsionalago bat defendatuz. Oro har, paradigma errealista eta liberala kritikatzeko, gizona emakumearen gainetik posizionatuko duen nazioarteko sistema zapaltzaile baten statu quo-a mantentzen duela kritikatu. Hau argudiatzeko ezinbestekoa da kontuan izatea, genero identitateak sozialki eraikiak direla (de Beauvoir, 2000). Baieztapen honek maskulinitate eta feminitateak naturalki gorputzetan esleituak dauden identitateak direlaren argudioa desarmatzen du. Honez gain, genero identitateen artean dauden egiturazko ezberdintasunak jartzen dira jomugan

Feminismo liberala, Nazioarteko Harremanetan eta segurtasun esparruan emakumeen auzia lehen lerrora eramatean zentratu da. Korrante liberala feminismoaren esparru barnean ikuspegi nagusienetarikoa da, eta nabarmentzekoa da honek Nazioarteko

⁸ “International Politics is a man’s world (...)” izango da zita testuala.

Harremanetan duen garrantzia. Cyntia Enloe, “pertsonala politikoa da” ideia Nazioarteko Harremanen esparruan txertatzen du. Honela, eremu pribatuan ematen diren genero rola eta botere erlazio desigualak esparru publikoan eta Nazioarteko Harremanetan nola erreproduzitzen diren salatzen du (Swaine 2019, 765. or.), errealitate honek emakumeek gizonengan duten subordinazioa posizionamendua begibistan uztziz.

Ann Tickner, ikuspuntuko feminismoaren⁹ korrontearen parte dena, ez du Nazioarteko Harremanetan emakumea aldagai analitiko bezala erabiltzearekin bat egiten, korronte feminista liberalak babesten duen modura. Korronte honek, emakumeek segurtasun eta alor politikoan dituzten bizipen eta ikuspuntuak hartuko ditu oinarritzat (Vazquez, 2012).

Honen harira, Ticknerrek, segurtasuna indarkeria eza bezala identifikatzen du Nazioarteko sisteman ematen diren botere erlazioak aztertzeke generoaren ikuspegia txertatzea ezinbestekoa dela berrestuz. Era berean, Nazioarteko Harremanetako analisiak kritikatzeko gizonen pribilegio poziziotik ezarriak eta pentsatuak izan direla salatuz (Blanchard, 2003).

Honela, gerra eta nazioartea gizontasunari atxikitutako ezaugarriak ditu bere baitan: Autonomia, indarra, oldarkortasuna, boterea esaterako. Kontrara, politika nazioanala eta bizitza soziala agertzen dira, segurtasunaren bigarren plano batean geratzen direnak eta feminitatearen estereotipoen eraikuntzari erantzuten diotenak.

Gerra inguruneak estereotipo hauekin lotzen dira, maskulinitate eta feminitateen mobilizazioak aztertuz. Hau da, segurtasun agendaren baitan patriarkatuaren sostengu diren identitateen erabilera identifikatuko da. Horregatik, gatazka testuinguruetako dinamika sozialak ulertzeko ezinbestekoa da ikuspuntuko feminismoaren ekarpen analitikoak gurera ekartzea, emakumeen bizipenek gerrek gizarte zibilian duten eraginak garrantzia hartuko dutelako patriarkatuaren eta gerraren intererlazioa agerian utziz¹⁰.

Modu honetara, genero identitateak elementu aldakor eta anitzak direla azpimarratzen dute eraikuntza sozial baten parte direla berretsiz. Identitate hauek, denbora, arraza, klasea eta kultura bezalako faktoreez daude gurutzaturik. Honela segurtasuna eta mehatxuak botere egitura patriarkalak zehazturiko testuinguru historiko eta kultural zehatz batetik hautematen dira.

Feminismoen artean emandako eztabaida guzti hauek ezinbestekoak dira lanean zehar ikusiko diren maskulinitate eta feminiatate militarizatuen eraikuntza, eta patriarkatuaren eta gerraren arteko elkareragina ulertzeko. Gainera, gatazka testuinguruetan sustatzen diren botere erlazioez gurutzaturiko genero dinamika sozial hierarkioak nola erreproduzitutako diren identifikatzeko ezinbestekoa da maskulinitate eta feminitate militarizatuak kontuan izatea.

⁹ Korronte hau izendatzeko ingelesezko termino originala “Stand point feminism” da.

¹⁰ Gatazka testuinguruaren errealitatearen analisi bezala emakumeen bizipen eta errelatoak kontuan hartu izatea ezinbestekoa izan da bortxaketa gerra arma bezala kontsideratzeko.

2.2 Gerra Berriak eta Babesteko Erantzukizuna

Ikusi bezala segurtasun teorietan emandako aldaketek mundu mailako prozesu globalizatzaileari erantzuten diote. Korrante kritikoez, segurtasun kontzeptualizazio hegemonikoak zalantzan jartzeaz gain, testuinguruaren begirada ezberdin bat eskeintzen dute. Horregatik, aurreko atalean landutako ikuspegi kritikoz baliatuz, egun gerrak nola gauzatzen diren eta hauen barne agertzen diren errelato ezberdinak perspektiba kritiko batetatik jorrazteko aukera ematen digu.

Atal honetan, gerra testuinguruaren aldaerak analizatuko dira “Gerra Berrien” kontzeptua ikusiz. Behin, gerra testuinguru berriak argi izanda, Nazio Batuen Erakundearen eskutik, iparralde globaleko herrialde nagusien nahia jarraituz, burututako esku-hartzeen baitan agertzen diren justifikazioak aztertuko dira “Babesteko Erantzukizuna” kontzeptua ikusiz. Azken batean, gerren inguruko analisi kritikoa burutzeko ezinbestekoa da, gerrak nola aldatu diren ulertu eta hauen baitan agertzen diren aktore ezberdinek bereganatzen duten posizio eta papera ongi identifikatzea.

Gerra egiteko moduak, globalizazio prozesuak bultzatutako aldaketa ezberdinei moldatu ziren. Globalizazio prozesua 70. hamarkadaz geroztik hasi zen hedatzen, mundu mailako interdependentzia eta arazoaren nazioartekotzearekin¹¹. Baina benetako aldaketa 90. hamarkadan ematen da ordena bipolarren amaieraren eraginez; honek, globalizazio neoliberalaren kontrol gabeko hedatzea suposatuko du¹² gerra zibilen gorakada emanez. Horregatik, segurtasunaren kontzeptualizazio berriek eskeinitako marko berriak, ezinbestekoak dira errealitate konplexu hau ongi ulertzeko (Peña, 2002).

Modu honetara, nazioarteko segurtasun agenda progresiboki hedatu da; droga trafikoa, terrorismoa, diru zirutzia, aldaketa klimatikoa, migrazioa, fundamentalismoen gorakada, gerra zibilak esaterako, segurtasun agendaren lehen lerroan finkatu dira. Testuinguru hau “arriskuaren gizarte” bezala definitzen du Ulrich Beck-ek (Beck, 2002 en Rojas, 2004).

Denbora tarte honetan emandako gatazka armatu modernoaren gehiengoa hegoalde globalean piztu dira, eta zonale honetako herrialdeek bizi dituzten problematika sozio-ekonomiko ezberdinekin zuzenki loturik daude. Testuinguru hauetan, hegoaldeko gobernuak botere politiko eta militarren kontrola galtzen dute haien estatu mugen barneko gatazkek hedatuz doazen heinean. Honela, herrialdearen zenbait eremutan herriaren “defentsarako” ahalmena progresiboki galduko da. Kontestu honetan, helburu militarrek edo finantziario iturriak zeintzuk diren identifikatzea eginkizun zaila delarik (Pérez de Armiño, 2012). Gatazka hauek hartzen duten dimentsioek nazioartean zuzenki

¹¹ Petroleoaren krisia eta honen kudeaketa esaterako egitate honen hizpide izango da.

¹² Sobietar Batasuna konformatuko zuten herrialde gehienak egun batetik bestera estatuaren kontrolpeko ekonomia zentralizatu bat izatetik merkatu neoliberalaren esku geldituko dira, ekonomien arteko trantsiziorik gabe. Moskun irekitako McDonald's-a sistema neoliberalaren hedatze gose aseezina irudikatuko du; munduaren “Macdonalizazio” prozesua esenifikatuz. Azpimarratu beharra dago, sistema ekonomiko eta politiko sozialisten bapateko irekierak herrialde hauek krisi sakonetan murgiltzea suopatu zuela, gaur arte irauten dituzten iraganeko egiturazko arazoei lotuta dauden lurraldeak direlarik.

eragiten dute segurtasun agendaren prioritate bihurtuz; Kosovon, Bosnian, Kolonbian eta Afganistanen loratutako gerrak batez ere. Mary Kaldorrek errealitate konplexu hauek aztertzen ditu “Gerra Berrien” kontzeptua erreminta analitiko bezala erabiliz. Kaldorrek, gerra modernoak analizatzen ditu, helburu militarrek, finantziario baliabideak eta borroka metodoak analizatuz (Kaldor, 2011 en Peña, 2002).

Hemen, ezegonkortasun sozio-ekonomikoak ezinbesteko faktorea dira tankera hauetako gatazka armatuak pizteko; globalizazio eta neoliberalizazio prozesuaren ondorio zuzen direnak (Kaldor, 2010). Honez gain, teknologia garapenak eta ekonomiaren finantziarizazioak gerra egin eta elikatzeko era berriak ekarri ditu: kontrol forma, komunikazio, inteligentzia eta finantzaketa ereduak etab. Hau kontuan izanik, gerran emandako transformazioak ikustea ezinbestekoa da, testuingura zeharkatzen duten faktoreak nolako efektuak dituen ulertzeko.

Gerra Berriez mintzo gaerenean “Gerra Zaharren” diferentziazio modura egiten den kontzeptua dela baieztatu daiteke. Modu honetara, gerra zaharrak, XV eta XVIII mendeen artean European gerra egiteko formak dira. Nazioarteko sisteman errotutako estatu modernoari loturik piztutako gerrak, gerra berrien agerpenarekin bukatuko direnak (Kaldor, 2010). Gerra hauetan, gerlariak eta gizarte zibila eremu lauso baten kokatzen dira aktore armatuen eta biolentzia eragileen identifikazioa zailduz.

Gerra Berrien kontzeptua marko praktiko batera lurreratzeko, Kaldorrek Yugoslavia ohiko gerrak aztertzen ditu, estatu Yugoslaviarraren erortzearen eraginez piztutako gatazka armatu ezberdinak hain zuzen.

Analisi honetan, Gerra Berriak ulertzeko zenbait ardatzezko puntu identifikatzen ditu (Kaldor, 2010):

- Borroka ereduak dagokionez, egitura militar eta polizial ofizialetatik eratorritako talde armatuak agertzen dira, estatuak biolentzia antolatuaren monopolioa galtzearen eragiten dutenak. Hemen, paramilitarrak, autodefentsa taldeak, indar armatu ofizialak, atzerriko mertzenarioak eta atzerriko tropa erregularrak aurkituko dira.
- Beste alde batetik, gerraren justifikazio politiko bezala identitate etniko tradizionalen goratzea bultzatzen da. Hau da, etsaiaren irudia bizikidetzan dauden bestelako etnia edo talde erlijiosoek gorpuzten dituzte; bertatik kanporatu behar dituzten gizataldeak bezala, lurraldean bizitzeko zilegitasuna ez dutela berretsiz. Hontaz, homogeneizazio etnikoa lortzeko egiten da gerrarako deia, lurraldearen “jabetza” erreklamatzuz. Identitate hauen eraikuntzak ez du identitate sentimendu abertzale tradizionalen patroiarri erantzutzen. Azken batean, sare transnationalek bultzatutako disonantzia kulturelek bultzatutako faktoreen emaitza bait dira.
- Aztertutako testuinguruko krisi ekonomiko larriak eta gobernuburuak utzikeriarengatik hauspotzen dira, estatuaren legitimazioa herdoilduz.

- Estatuaren eta boterearen desentralizazioaren ondorioz, ekonomia formala suntsitzen da oinarritzko produktuak lortzeko zailtasuna areagotuz. Porroteko ekonomia egoera honek ez du gerra elikatzeko baliabideak bukatzea suposatuko. Aitzik, kanpoko finantzaketaren bitartez gerraren bizirautea hauspotzen da. Fenomeno hau, gerra ekonomia globalizatu moduan ezagutuko da. Honela, gerrazko ekonomia totalizatzaile klasikoak (estatuaren zentralizazioaren baitan gerra zaharretan emandakoak, ekonomia produktibo guztia gerrara bideratzen zuenak) ez dute kabidarik izango testuinguru hauetan.

Analisi honetan ikusitako gatazka faktore nagusietariko bat gobernuak beren lurraldearen kontrola galtzerakoan, biolentziaren eragite legitimoa galdu eta huts egindako estatu bilakatzen direla da¹³. Egoera honetan huts egindako estatuak ezingo du tokiko jendearen segurtasuna bermatu, botere politiko eta militarra talde armatu ezberdinen esku sakabanatuta geratuko delarik.

Horregatik, kontuan izatekoa da gatazka hauetan talde armatu ezberdinek, biolentzia zuzena erabiliko dutela tokiko gizartearen menderatzerako. Estrategia honen baitan, tokiko gizatalde ezberdinak helburu militar nagusi bilakatzen dira, lurraldearen menderatzea kontrol politiko totalaren bitartez lortu nahian. Gizarte zibila helburu militar bilakatzean, emakumearen kontrako biolentzia gerra albokalte bat izateari uztziko dio gerra helburu estrategiko bat izateko (Segato, 2003).

Gizarte zibilak gerra testuinguruetan bizi ahal dituzten arrisku egoerez babesteko, Nazio Batuen Garapeneko Programak (PNUD) “Giza Segurtasunaren” kontzeptua formulatuko du 1994. urtean¹⁴. Segurtasuna ulertzeko kontzeptualizazio tradizioaletatik aldenduko da segurtasunaren sujetua estatuetatik aldenduz eta gizabanakoetan ezarriz. Kontzeptu berritzaile hau “Giza Garapenaren” eskutik helduko da; arrazoi honengatik ezingo da Giza Segurtasuna ulertu, garapena, giza eskubideak eta segurtasun nazionala bezalako kontzeptuen garrantzia ikusi gabe (United Nations Trust Fund for Human Security, 2005).

Giza Segurtasunaren kontzeptuaren zentruan aurkitzen da pertsona, segurtasun sujetu printzipal bezala, honen biziraupena, mantenua eta duintasuna mehatxatuko duten baldintzen aurrean babesean zentratuz. Modu honetara, mehatxuak modu zabalean ulertzen dira, segurtasunaren ikuspegi multidimentsional batez: Ekonomikoa, elikadurazkoa, ingurumenekoa, pertsonala, komunitatearena eta politikoa, elkarerlaxionatuta dauden dimentsioak. Haien artean indartu eta elikatuz, segurtasun logika nazional eta nazioartekoaren kontzeptuetatik haratago doazen dimentsioak dira. Honela, segurtasun ikuspegi honetan mehatxu eta arazoak ez dira era isolatuan

¹³ Yugoslaviaren kasua huts egindako estatu baten adibide argia da, baina azpimarratu beharra dago, tankera hauetako gatazka guztiek ez dutela zergatik huts egindako estatuak izaten bukatu behar.

¹⁴ Nazio Batuen barnean interkonektatutako mundu globalean emandako mehatxu berriei aurrean emandako eztabaiden ondorio izanik (United Nations Trust Fund for Human Security, 2005).

hautematen eta hauen erantzuna ezinbestean ikuspegi multidimentsional batetatik bideratu beharko da.

Ikusi bezala, mehatxu berriek hartutako izaera transnazionalak segurtasun logika tradizionaletik -kanpoko eraso militarretan zentratua- haratago hedatu dira. Hau kontuan izanik, giza segurtasuna ikuspegi integral baten inguruan eraiki da, hau da, errealitatearen konplexutasun eta faktore ezberdinen elkar mendekotasuna barneratuz; garapenarena, giza eskubideak eta segurtasunarena hain zuzen.

Interkonexioz loturiko errealitate globalizatuaren baitan, tokiko desegonkortasunak hegoalde globaletan ematen dira, kontestu hauek azpigarapenarekin zuzenean lotuko direlarik (Pérez de Armiño, 2012). “Intermestiko”¹⁵ kontzeptuak tokiko herrialdeen barne arazoen eta nazioarteko interesen muga lausoa deskribatzen du (Meinderts, 2020). Honela, interes gurutzatzen eremu honek eragin zuzen bat du; ipar globaleko potentziek gero eta arreta handiagoa jarriko dute ezegonkortasunak piztu ditzakezen herrialdeetan; interes muga fin honek, arazo globalak konpontzeko estatuak duten papera birplanteatzera eramango du nazioartea, esku-hartzen forma berriak planteatuz estatuen subiranotasun kontzeptuaren kaltetarako¹⁶.

Tradizionalki estatu bateko barne arazoetan egindako esku-hartzeak ekintza kaltegarri bezala hauteman dira, batik bat, hauek herrialdeen ordena apurtzeko eta nazioartean ezegonkortasuna sortzeko duten ahalmenarengatik. Egun beste estatu baten barne arazoetan sartzea muturreko erabaki bezala ikusten den arren, ekintza hauen justifikazioaren baitan dauden arrazoiak aldatuz joan dira, injerentzi eta esku-hartze ezberdinen zilegitasunaren eztabaida bizirik iraunaraziz (De Paula, 2008).

Estatua oraindik ere segurtasun eskubidea mantendu eta nazioarteko aktore zentraletako bat izaten jarraitzen duen arren, kanpoko mehatxuen aurka babesteko, nazioarteko komunitateak segurtasun politika orokorraren helburu bihurtu du pertsonen babesa eta segurtasuna.

Horregatik, nazioarteak (iparraldeko herri globalak buru) egonkortasun globalaren eta giza segurtasunaren baitan alor humanitarioko ekintza ezberdinak burutzen ditu; testuinguru honetan ezinbestekoa kontsideratuko da gobernu egiturak indartzea, bai politiko zein militarrek. (Fukuyama, 2004). Honela, mehatxu hauek pizten diren

¹⁵ “Intermestiko” kontzeptua, Bayless Manning Estatu Batuetako atzerri ministroak idatzitako artikulua batetan kanpo politika batzuk estatuen barne politiketan duten eragin zuzena azaltzeko erabili zuen, nazioarteko interesak tokiko interesekin zituen lotura gero eta gorakorragoa azaltzeko hain zuzen.

¹⁶ Westfaliako akordioetatik nazioarte mailan indarrean egondako printzipioa. Halaber, Nazio Batuen Gutunaren 2. artikulua, estatuen barne arazoetan nazioarteak edo bestelako estatu batek egin dezaken indarraren erabilera edo esku-hartze armatua debekatuko du. Honela, estatuen arteko liskarrek sortu ahal duten ezegonkortasuna saihesteko helburuarekin, nazioarteko zuzenbideak hiru printzipio nagusi izan ditu sostengu modura; estatuen subiranotasuna, beste estatuen barne arazoetan esku-sartzerik ez egitea eta beste estatu baten aurka indar armatua ez erabiltzea.

hirugarrengo estatuetan kontrol eta esku-hartze forma berriak agertuz doaz nazioarteko segurtasunaren izenaren baitan.

Ekintza humanitario eta garapenerako lankidetzaren hiztegiaren arabera, Esku-Hartze Humanitarioak, nazioartekak estatu zehatz baten mugen barnean egindako ekintzak dira. Ekintza hauek bi kasu nagusitan emango dira (Murguialday, Pérez de Armiño, & Eizagirre, 2000): Bertoko populazioa oinarrizko giza eskubideen urraketa larri eta masiboen aurrean babesteko alde batetik. Eta bestetik, gatazka armatu baten murgildurik dagoen estatuaren gobernu subiranoak -tokiko biztanleriak jaso behar duen laguntza humanitaria oztopatzen duen kasuetan- biztanleriak jasoko duen laguntza bermatzeko xedearekin.

Esku-hartzeen inguruan emandako eztabaiden harira, “Responsability to Protect” edo ezagunagoagatik den “R2P” deituriko “Babesteko Erantzukizun” kontzeptua jaioko da; Nazioarteko Batuen Erakundeak, “NBE” hemendik aurrera, ateratako 2005eko txostenean kontzeptua teorizatu eta arautuko da, estatuak gatazka egoera hauetan errespetatu beharko duten jokabidea, marko juridiko global baten egiturari barneratuz (Chandler, 2012). Modu honetara, Giza Segurtasunaren kontzeptuaren zimenduetan oinarrituz, giza eskubideak urratuko dituen edozein egoera ekiditea du helburu nagusi. Hau da, estatu batek bere biztanleriaren segurtasuna bermatu ezin badu eta gizateriaren aurkako krimenak sufritzeko arriskuan egonez gero, nazioartekak Nazio Batuen Gutunaren VII. kapituluan aurreikusitako segurtasun kolektiboaren testuinguruan, lurralde horretan esku-hartzeko¹⁷ -eta muturreko kasuetan indarra erabiltzeko- eskubidea izango du (Moral Revilla, 2019).

Halaber, babesteko erantzukizunak, krimen ankerren biktima izateko arriskuan dauden herri eta komunitateak aurkitzen diren estatuaren ardurapean jarriko du arreta, eta ez zuzenki esku-hartzean. Eta indarraren erabilera muturreko kasuetarako utziko da; Yugoslabiako, Somalia edo Ruandako gerren kasuak esaterako. Misio humanitario hauek oso kritikatuak izango diren esku-hartzeak dira.

Zentzu honetan, Giza Segurtasunaren kontzeptualizazio eta erabilerari, estatu boteretsuek eta nazioarteko erakundeek ordena liberal global baten sostengu, eta hegoaldeko herrienganako kontrol politika hegemoniko desberdinak justifikatu eta legitimatzeko erabilia izatea leporatuko zaio korrante kritiko ezberdinetatik. Nazioarteko ezegonkortasunaren iturri diren mehatxuak kudeatzeko mendebaldeko blokeak erabiliko duen kontrol erreminta bezala funtzionatuko duela egotziko zaio. Halaber, segurtasun eta garapenaren arteko erlazioa sendotuko du ezegonkortasunen ardura (politiko zein ekonomikoa) hegoaldeko herrietan ezarriz. (Duffield, 2007).

NBEk misio humanitarioetan bidalitako soldaduen eskutik emandako giza eskubideen urraketak batzen dituen informe ugari jaso izan ditu, gehiegikeri hauen artean esplotazioa

¹⁷ Angola, Mozambike, Namibia, El Salvador, Guatemala eta Cambodia izango dira misio humanitarioak emango diren lehen herrialdeetakoak.

sexual eta sexu abusuen dira nagusiak. Informe hauetan herrialde ezberdinetan emandako kasuak aurkituko dira¹⁸: Angola, Bosnia-Herzegovina, Burundi, Camboya, Congo, Boli Kosta, Haiti¹⁹, Guinea, Timor Este, Kosovo, Liberia, Mozambique, Sierra Leona eta Somalia.

Hontaz, bake misioetan Giza Segurtasuna bermatzea zuribide izanik mobilizatutako NBEko indar armatuak izango dira krimen ankerrak burutuko dituzten berdinak.

Amaitzeko, aipatu beharra dago, gerra testuinguruetan emandako giza eskubideen urraketa nagusietan hauetan patroï general bat agertzen dela biktima eta biktimarioaren irudian. Honela, biktima emakume eta umeetan gorpuzturik aurkitzen dira, eta biktimarioaren irudia gizon militarrean. Beraz, salaketa hauetan batutako gehiegikerietan genero eta indar militarren arteko erlazio argi bat dago impliziturik; kultura militarra, patriarkatua eta soldaduen maskulinitate militarizatuak aztertzeraz eramango gaituena.

Hontaz, biolentzia zuzena, ez da giza segurtasuna mehatxatuko duen elementu bakarra izango, alabaina, bestelako biolentzia ezberdinak aurkitzen dira egiturazko biolentzien forma hartuz. Hauek ikusgai egitea ezinbestekoa da gizarteko gizatalde zaugarriengan militarismoaren eta militarizazioaren efektuak nola eragiten duten ulertzeko (Grewal, 2003).

¹⁸ https://www.fuhem.es/papeles_articulo/violaciones-de-derechos-humanos-por-integrantes-de-las-misiones-de-paz-de-la-onu/

¹⁹ Esaterako Haitin 2.000 emakumek baino gehiagok, horietako askok adin txikikoez, sexu-abusuak jasan dituzte Nazio Batuek 2004tik 2017ra bitartean bake misioan desplazatutako indar militarren aldetik. <https://www.elmundo.es/internacional/2019/12/19/5dfb28d9fdddf565e8b45a7.html>

3. INDAR ARMATUEN MODERNIZAZIOA

Gerra Berrien eta hauen justifikazioen nondik norakoak ikusirik, nazioartean segurtasuna “bermatuko” duten indar armatuen analisisa bideratuko da. Indar armatuak Gerra Berrietan parte hartzeaz gain, esku-hartze humanitarioen aktore dira, misio humanitario eta bake misioetan parte hartuko dutenak. Aurretiaz segurtasun kontzeptualizazio berriekin ikusi bezala, nazioartea eta honek barneratzen dituen gatazkak ulertu eta hauei aurre egiteko formak guztiz aldatu dira. Aldaera guzti hauekin indar armatuak ere nazioartek planteuriko jokamolde berrietara moldatuz joan dira.

Indar armatuak segurtasunaren oinarrietako bat izanik, nazioarteko sistemaren berebiziko aktore dira. Hein batean herrialdeen arteko botere erlazioak agerian utziko dituzte, egitura militarren dimentsioa izanik herrialdeen botere mailaren adierazle. Hau da, herrialde batek gero eta indar armatu indartsuagoak izan, bai egitura, giza baliabide zein teknologia aldetik, pisu handiagoa izango du nazioarte mailan.

Indar armatuek sufritutako modernizazioa globalizazioaren baitan emango da, hauen egiteko eta egiturak zuzenean taxutuz, eta gerra egiteko eta segurtasun kontzeptualizazio berrietara moldatuz. Egiteko berrien izaera multifuntzional hauetara moldatzeko, prestakuntza militarrek, garapen teknologikoen eta errealitate sozial eta kultural anitzen kudeaketa maneiatzera behartuta agertuko da, errealitate berri honetan, nazioarteko interesak interes lokalekin gurutzatuko direlarik.

Halaber, aurrerapen teknologiko eta aldaketa sozialen eraginez antolamendu militarrek profesionalizazio prozesu sakon bat jasan du gaur egun ezagutzen dugun sofistikazio maila lortuz (arma nuklearren erabilera, aditu sozial eta zientifiko ezberdinen barneratzea, eraso sexualen prebentziorako politikak etab.) (Dandeker, 1994).

Modu honetara, edozein herrialdetan loratu daiteken krisi edo gatazkak, gainerako herrialdeen aferei eragingo die testuinguru hauetatik urrun egon arren. Horregatik, logika honetan tokiko herrialdeen krisi edo arazoak nazioarteko segurtasunaren afera bilakatuko dira. Honela, subiranotasun nazionala indarra galduz doan heinean, mendebaldeko demokrazia liberalen indar militarrek mundu mailako ordena berrira moldatu dira (Moskos, 1985).

Egitura militarrentzako hau kudeatzea erronka handi bat suposatzen du: Azken batean, aktore sozial eta politiko anitzekin lan egitera behartuko diolako alde batetik. Eta bestetik, aldaketa konstantean dagoen nazioarteko errealitate interkonektatua ulertu eta segurtasun aferak kudeatzeko saiakera gero eta konplexuagoa bilakatuko delako.

Era berean, gizarteak nazioarteko gatazkak interes nazionalekin eta haien bizitzekin lotu edo identifikatzeko zailtasun handiagoak izango ditu, haien gobernuek gatazka hauetan duten parte hartzearen sostengua zailduz.

Honek, indar armatuen misioen justifikazio errelatoan eragin du, gerra eta esku-hartzeen babes publikoa higatuz eta hauen sostengua epe laburrera mugatuz (Friis, 2005). Honen

adibide zuzen ikusiko da, mendebaldeko herriek nazioartean bideratu dituzten eskuhartze ezberdinetan gizarte zibilak egin dituen kritika irmoak²⁰.

Egitura militar modernizatuak disuasioa eta dimentsio baxuko helburu politikoen lortzea dute helburu militar edo egiteko zentrala, mehatxu bezala konfrontazio militar klasikoaren garrantzia bigarren plano batean geratuko delarik. Egiteko hau bestelako aktore ez militarrekin elkarbanatuko dute: Diplomatikoa, politikari eta bestelako garapen eta laguntza arloko aktoreekin gehienbategi. Aktore multzo hauei gatazken lehen lerrora pasako diren erakunde militar pribatuak gehitu beharko zaizkie.

XXI. mendeaz geroztik segurtasunaren pribatizaziorako joeraren hauspotzearekin tradizionalki erakunde publikoen esku zeuden kompetentzien azpikontratazioaren joera handituz joan da. Honek industria militarren alorreko enpresak indartu ditu segurtasun alor publikoaren eta indar armatu ofizialen kide bilakatuz. Honen adibide argia migrazioaren problematikaren aurrean eman den mugen militarizazioan erabilitako enpresa pribatuak izango dira. Erakunde militarizatu pribatu hauek, defentsarako indar armatu ezberdinekin ikusi ditzakegu enpresa hauek elkarlanean, honetariko asko giza eskubideak urratzeagatik auzipetuak.

Testuinguru honetan egungo indar armatuak ezinbestekoak dira estruktura global neoliberalaren indar korrelazioen egonkortasuna mantentzeko. Era honetara, militarismoarekin batera nazioarteko egitura soziopolitikoan berebiziko papera burutzen du nazioarteko sisteman, biopolitika modu ezberdinak ematen direla ziurtatuko duena (Duffield, 2003 en Rojas, 2006).

Logika honetan, mendebaldeko indar armatuak dira aktore zentral, hala ere geopolitikako xake taula mailakutzen doan heinean, herrialde garatuak kontsideratzen ez ziren herrialdeak indarra metatzen doazen heinean, Txina, India edo Errusia bezalako herriak esaterako aktore berriak ikusi ahal izango dira botere logika hauetan mugitzen.

2.2 atalean ikusi bezala jada gerren tankera guztiz aldatu dira eta indar armatuak gatazka berri hauen berezitasunei moldatu dira, aldaera honetan bi dimentsio nagusi identifikatuz; misioen egitekoan alde batetik, eta garapen sozial eta teknologikoen eraginez sortutako antolaketa egitura berriak bestetik.

Indar militarren egiturazko aldaketak definitzeko, zenbait autorek egitura moderno batetatik postmoderno batera igaro dela berresten dute (Moskos, Williams, Segal, 2000 en Sookermany, 2013). Gerra Hotzaren amaieran estatu-nazioari lotutako armadak, nazio sentimenduari gogor atxikirik eta organizatiboki homogeneoagoak zirenak lekuz kanpo geratuz joango dira testuinguru globalak eskainiko duen behar eta egitura berrien bultzadaz (Haltiner, 1998).

²⁰ Iparralde globaleko herrialdeek burutu dituzten guda edo militarizazio prozesuen kontrako adibide anitz aurkitu ahal ditzakegu; zerbitzu militarren kontrako Euskal Herriarren mugimendu insumisoa, AEBtako Vietnameko gudaren kontrako mobilizazio sozialak, Irakeko eta Afganistango gerren kontrako kanpainak etab.

Guzti hau kontuan izanik, indar armatu postmodernoa definituko duten aldaketa hauek dimentsio ezberdinetan sailkatuko dira (Booth, Kestnbaum, eta Segal 2001):

- Alor zibil eta militarren arteko erlazionatze eta zeharkagarritasun gero eta handiagoa.
- Indar armatu teknologikoki aurreratua, sektoreka banakaturik dagoen egitura.
- Dimentsio militarra eta laguntza edo bake aferak indar armatuen misioetan barneratzea (esku-hartze humanitario edo humanitarismo militarizatua emanaz).
- Nazioz gaindiko erakundeek adostutako nazioarteko misio ezberdinetan parte hartzeko indar militarrek duten zilegitasuna (NB, Europar Batasuna, Afrikar Batasuna etab.).
- Indar militarren aliantzen nazioartekotzea (NATO).

Indar armatu posmodernoek bake misioetan parte hartzeko prestatuak izateak ez du suposatuko borroka eta gerra alde batera lagako dutenik (Baquer, 1987). Aitzik, gerrarako prestakuntza, bake eta misio humanitarioen prestakuntzarekin bat joango da (Dandeker, 1988).

Hain zuzen, organizazio edo antolaketa militarri dagokionez, pairatu dituen aldaketa nagusienetarikoa masazko indar armatuen egitura alde batera uztea izan da. Hau da, nahitaezko errekrutatzearekin osaturiko talde egitura, boluntarioki armadan sartzen diren soldaduengatik ordezkatuak izan dira. Honek eredu berri baten indartzea ekarri du, zeinak arlo desberdin eta anizteta prestakuntza maila altuagoa bermatzen dien soldaduei.

Honen harira, Moskosek instituzional/okupazional dikotomiarekin azaltzen du indar militarrek talde sozial ezberdin bezala, iparralde globaleko gizarte egituretan duten integrazioaren izaera (Moskos, 1985):

Indar militarren izaera instituzionala, balore eta arau militar klasikoetan oinarrituko da - ohorea, betebeharra eta aberria- eta bizitza militarra zerbitzu bezala hautematen du (aurretik aipatu bezala). Hemen, abertzaletasunak indar handia izango du, bizitza zerbitzu militarrean emateko arrazoi nagusietariko bezala izanik. Honela, estamentu militarra, izate itxi bezala emango da, bizitza sozialarekiko independentzia handia izanik eta soldaduen egitekoari forma emango dion identitate nazioanalaren presentzia indartsuarekin. Ideia honek lehen zuen garrantzia probresiboki galtzen joan den arren, oraindik ere mantentzen da indar armatuen disziplina balore eta kodeetan.

Izaera okupazionalari dagokionean aldiz, soldadutza lan merkatuko eskaintza barruan agertuko den lan aukera bezala hautematen da. Hau da, ordainsaria egiteko forma motibazionala bezala, gizarte zibilak izan ahal duen edozein enpleguren antzera. Honela, aberriarengatik bizia emateko prest egongo den gertariaren itxurak pisu motibazionala galduko du. Eredu hau, demokrazia liberal garatuei atxikituko zaien modeloa da; izaera profesionaleko interes indibidualak lehenetsiko dira aberriaren sentimenduaren eta bizitza zerbitzu bezala ematearen aurretik.

Indar militarren baitan eraikitako modelo bi hauek kontzeptu tradizional eta modernoaren karakterizazio teorikoak dira, eta gaur egungo egitura militarretan bi eredu presentzia aurkitu daiteke. Horregatik autore batzuek, egitura militarren modelo hibrido defenstatuko dute, izaera instituzionala eta okupazionala barneratzen duena (Baquer, 1987).

Indar militarren modernizazio prozesuan emandako aldaketa teknologikoen antolakuntza militarra espezialitate anitzetan banatzen du, arma-sistema konplexuen eta garapen teknologiko eta sozialen baitan. Horregatik, armaden espezializazio eta garapen teknologiko mailak gero eta indar handiagoa hartuko du egitura militarrentzako borrokalarien zenbatekoak garrantzi estrategikoa galtzen duen heinean (borrokalaria ezinbesteko elementua izaten jarraituko duela jakinik). Hontaz, erreklutatzearen zenbatekoa asko jaitsi arren, prestakuntza eduki militarretatik haratago joan da egitura teknifikatuz, eta ziurgabetasunak erreinatuko duen nazioarteko sistemaren testuinguru aldakorrenganako erantzuna landuz (Pichardo, 1998).

Indar armatuek aldaketa asko pairatu izan dituzten arren, oraindik ere antzekotasun ugari mantentzen dituzte iraganean ematen ziren gatazka armatuekin: Diziplina, ordena soziala, hierarkia eta obediencia beharrezko dituen hertsapenezko ekintzak burutzera eramango dituzte soldaduak²¹.

Honela, modernizazio prozesuari bizirau duten eta egitura militarren funtzionamenduaren zutabe izaten jarraitzen duten zenbait balore eta kode agertzen dira (Moskos, 1985):

- Indar militarrek, botere eta autoritate mailaren arabera egitura hierarkikoa dute, aginteei erantzungo dioten mailakatze argi bat izanik.
- Botere eta autoritate ezberdinenaren subordinaio oso eta disziplinatua: disziplina militarra, maila bakoitzeko erlazio eta egitekoak ordenatu eta erregulatuko dituen funtsezko kontzeptua da.
- Ohore, betebeharrak eta fideltasun printzipioek maila goreneko militarrei, soldaduek haien egiteko eta misioak burutzearen bermea. “Kontzientziaren harrak²²” ez du kabidarik izango egitura hauetan, agindu ez betetzea gogor zigortuko delarik.
- Kode eta balore militarrek arautuko dituen jarrera hauek, bizitza zerbitzu bezala hautematearekin zuzen loturik dago; hierarkia, disziplina, ohorea eta adorea izanik indar armatuak egitura sozial, juridiko eta politiko bezala sostengatuko dutenak.

²¹ Huntingtonek “Haustura lerroen gatazka” bezala definituko du kontestu hau (Huntington 1997).

²² “Cargo de conciencia” gaztelera.

Modernizazio prozesu hontan, indar militarren inguruan eraikitako maskulinitate ereduek, bi gizontasun eredu nagusiei erantzungo diete: Lehena, indar militarren izaera instituzionala irudikatzen duena, “eskola zaharreko gizonarekin” identifikatutako maskulinitate klasikoa, oldarkorra, indarra eta kemena berezko duen gizona, sentimenduak erakusten ez duena. Eta bigarrena indar militarren izaera okupazionalaren irudi, maskulinitate berriekin²³ identifikatuta aurkituko den gizontasuna. Maskulinitate berrien baitan emandako patroik berriak erreproduzitzen dituen ereduak da, “eskola zaharreko” gizona baino sentikorra izanik arrakasta profesional indibiduala jomuga izango duena.

Maskulinitate eredu bi hauek indar armatu postmodernoen modernizazio prozesuaren baitan erreproduzitu dira. Eta egitura militarrek bizi izan duten modernizazio prozesua errealitate bat izan arren, oraindik ere egitura militar tradizionalaren emandako sozializazio militarizatuekin antzekotasun ugari mantentzen dute. Honez gain, indar militar postmodernoen baitan soldaduek erreproduzitu dituzten baloreek gizontasun modelo argi baten irudiari jarraituko diete; maskulinitate militarizatuen eraikuntza izanik soldaduen izatearen ardatz. Hortaz, soldaduek diziplinazko arau militarrik jarraituko dituzte, dinamika sozial militarra gizontasunaren inguruan erreproduzitzen.

3.1 Emakumearen sarbidea indar armatuetan

Gizontasunaren domeinu kontsideratu diren indar armatuak, emakumearen sarrera onartzera beharturik ikusi dira gutxiengo sexualen onarpenarekin gertatu zen modu berean. Egitura hierarkiko hauetan ematen diren erlazio eta hartuemanak ulertzea ez da beti erraza izango, entitate opaku eta itxiak bait dira. Aurreko atalean ikusi bezala, maskulinitate militarizatuen inguruan errotutako talde izate sendo eta arau militar zorrotzek ematen dioten babespean oinarritzen da sozializazio militarra. Kontestu hontan, emakumea gizartearen aurkitzen den eremu maskulinizatu bortitzenean barneratu da, indar militarretan zenbait aldaketa ekarriz, eta eztabaida ugari piztuz.

Emakumearen sarbidea XX. mende amaierako azken urteetan indar armatuak jasandako modernizazioaren baitan eman da nazioarteko herrialde gehienetan, betiere gizartearen emandako eraldaketei erantzunez. Emakumeak indar militar ofizialetan izango duen integrazioa ez da prozesu erraza izan eta emakume izateagatik gaitzespen eta biolentzia ezberdinak bizi izan dituzte. Indar armatuetan ematen diren hartu eman hauetan feminitate eta maskulinitate militarizatuen jarrerak ikusiko dira praktikan, hauen arteko botere erlazioak era argian markatuz. Hurrengo lehen atalean integrazio honen prozesua aztertuko dugu feminismoaren baitan dauden ikuspuntu ezberdinak ikusiz.

Oro har, gerretan borrokatu eta parte hartzeko eskubidea gizonen egiteko kontsideratu izan da orain dela gutxi arte. Hau gizarte gehienetan eman den joera izan da -gerrako

²³ Maskulinitate tradizional eta berrien eraikuntzan 5.1 atalean sakonduko da.

heroi eta figura mitologiko femenino gutxi batzuen salbuespenarekin- emakumeak gerra kontestuetan zuzeneko konfrontazioan parte hartzea ohiz kanpokoak izanik. Hala ere, gatazka militar tradizionaletan parte hartu izan dute eremu estrategiko militar ezberdinetan, bigarren mundu gerran esaterako. Baina, gerraren amaieran funtzio militarrek utzi eta beren ohiko eremu tradizionaletara itzultzera bultzatuak ikusi dira (Carreiras, 2004).

Feminismoak gogor kritikatu izan duen afera da hau, militarizazio prozesuek maskulinitate eta feminitate militarizatuak militarismoaren mesedetara erabiliko dutela argudiatuz. Honela gerrak gatazka armatua sostengatzeko, eskura dituen giza baliabide guztiak erabiliko ditu eta patriarkatuaren egituraz baliatuko da hau lortzeko²⁴.

Horregatik baieztatu daiteke funtzio militarretan emakumeen parte hartze profesionala iparralde globaleko herrialdeen indar armatuen eraldatze prozesuarekin bat heldu dela. Kasu askotan emakumeak borroka zuzenean duen protagonismo eza seinalatzen da integrazio faltaren seinale. Maya Eichelerrrek Kanadaren adibidea hartzen du indar armatuetan emakumeek izan duten sarbidea aztertzeko (Eichler, 2013). Herrialde honetako indar armatuek emakumeak borroka zuzeneko eginkizunetik aldendu izan ditu bestelako rol batzuetara mugatuz; 1989. urterarte gizonen kuota minimo batzuk ezartzen ziren egiteko militar bakoitzean, borroka armatuan %100 zen gizonaren kuota, eta bestelako eremuetan zaintzakoetan zentratutakoetan adibidez oso gutxi ziren gizonak.

Iparalde globaleko potentzien indar armatuen gertuko adibide bezala, Espainiako indar armatuen kasua dugu; 1988. urtean emango da emakumearen integrazioa gainerako mendebaldeko armaden modernizazio prozesuaren baitan. Emakumearen sarrera egitura militarretan orain dela 33 urte onartu zen arren, oraindik ere ez du gizonen espazio izateari utzi; emakumeek indar armatu espainolen %12,7a osatzen dute, aginte postuetan jeneral bat izanik, 2019an sartu zena (Ministerio de Defensa de España, 2019).

Denborarekin emakumeak borroka armatuko lehen lerroetan lekua egin du gutxika. Hau Afganistango esku-hartze militarrean ikusi daiteke irudikaturik, indar militar posmodernoen baitako lehen emakume soldaduen heriotzak eragin baizituen. Egoera honetan, indar armatuetan emakumeak berdintasunean aurkituko direla baieztatuko dute komunikabideek emakumearen integrazio osorako pausu bezala erakutsiz (Eichler, 2013).

Emakumeak indar armatuetan izan duen integrazioa modu ezberdinetan izango da jorratua. Alde batetik, emakumearen sarbidea irakurketa positiboki ikusten duten iritziak aurkitzen dira, feminismo liberaletik etorriak gehienbatean. Eta bestetik egitura militarrekin oso kritikoak diren feministen posizioa aurkituko dira, antimilitaristak esaterako.

²⁴ 4. Puntuak sakonduko da patriarkatuaren eta militarismoaren hartuemanaz militarizazio prozesuetan.

Feminismo liberalak gizon eta emakumeen arteko berdintasuna eremu ezberdinetan borrokatu behar dela arrazoituko du, eta eremu publiko zein pribatuetakoa aginteetarako sarbidea lortzeak berdintasuna bermatuko duelaren ustean oinarrituko dituzte haien arrazoibideak. Haien argudioetan emakumearen presentziak egitura militarrek aldatzeko duten potentzia defendatuko dute, egitura demokratikoagoa eta errukitsuagoa bihurtzeko ahalmena berezkozat harturik (Stiehm, 1989). Honez gain, zenbait korronte liberal klasikotik hartutako hiritartasun kontzeptuarekin lotuko dute ere emakumeen parte hartze militarra; hau da, soldadutza zerbitzua eskubide osoko subjektu izatearekin lotuz (Snyder, 2003).

Integrazio honen adibide bezala agertzen da Espainiako defentsa ministerioak martxoaren 8an emakumearen eguna dela eta 2021. urtean publikatutako bideoa²⁵ (Ministerio de Defensa de España, 2021), non espainiako indar militarretako emakume soldadua aurkezten zaizkigun, soldadutzaren bidez ahalduntze pertsonala lortu duten sujetu bezala. Emakume soldadu hauen testigantza laburrek indar armatuetan emakumeak duten egoera parekidea dela adierazten dute.

Hala ere, feminismo liberalak zenbait kritika egotziko dizkio egitura militarren funtzionamenduari. Lehenik, emakumea aginte eremuetara heltzearen oztopoak salatuko dituzte emakume eta gizonen funtzio berdina ez dituztela betetzen argudiatuz (MacKenzie, 2013). Gainera, emakumeek aginte postuak izateak, hauen sexualizazioa geldiarazteko erreminta potentzial bezala ikusiko da (Stiehm, 1989). Arrazoi honi helduz, zenbait gizon baino maila gorenagoan egoteak errespetuzko erlazio bat sustatuko du aginte hierarkiak markatuko duen ordenaren barne.

Beste alde batetik, egitura militarrekin ezkorragoak diren feminista anti-militaristak aurkituko dira, indar armatuak egitura bezala errotik kritikatzeko duten emakumearen partaidetza militarren kontrako izanik. Korronte honek, bi arrazoi nagusirekin irmoki defendatuko du egitura militarren baitan emakumea inoiz ez dela gizonaren pare izango (Cockburn, 2013): Diziiplina militarren egunerokotasunean, emakumeek onspen soziala lortzeko esfortzu bikoitza egin beharko dutela argudiatzen alde batetik. Eta bestetik, egoera desigual hau egitura militarren baitan patriarkatuak duen presentziaren eraginez emango dela azpimarratuz.

Korronte honek, genero dinamika desigualen erreprodukzioarako eremu bortiz bezala definituko ditu indar militarrek, maskulinitate militarizatuen inguruan eraikitako balore eta arauak balioesten dituelako. Honela, patriarkatua militarismoaren enbor bezala identifikatzen dute elkarlumenpeko erlazio batean atxikituta daudela azpimarratuz.

Honebestez, feminismo liberalak defendatzen duenaren kontrara, egitura militarren izate sexistak kontuan harturik, talde hauetan emakumeen kopuruak handitzeko sustatze politikak egiturazko aldaketak sortzeko izango duen ezintasuna azpimarratuko da. Modu honetara, patriarkatua eta militarismoaren amaitzeko desmilitarizazioa irtenbide bakar

²⁵ <https://www.youtube.com/watch?v=vYsc719COH0&t=1s>

bezala seinalatuko dute. Modu honetara, feminitate militarizatuen kontrako jarrera izango dute, hauek maskulinitate militarizatuak arau sozial bezala betiketuko dituzela eta genero erlazio desigualak normalizatuko dituztela salatuz.

Alegia, egitura militarren modernizazioaren eta indar armatuen atzean emakumearen instrumentalizazioa burutzen dela salatzen da (De Lluc Bagur eta Ribes, 2019).

Korrante antimilitaristaren aburuz, talde dinamiketara egokitzea behartuta ikusiko diren emakume soldaduek maskulinizazio prozesu bat jasango dute feminitate militarizatuen eraikuntzaren baitan. Maskulinizazio hau biolentzia ezberdinak normalizatuko ditu eta kultura militarren berezko elementu bezala onartuko da. Halaber, sozializazio militarrean eta identitate militarizatuen eraikuntzan maskulinitateek duten pisua dela eta emakumeren integrazio militarra zailduko da (Eichler, 2014).

Azken batean, emakume soldaduek gizon soldaduen inguruan eraiki izanak, emakumea berezko soldadu bezala identifikatzea zailduko du. Azken batean, feminitate militarizatuak soldadu maskulinoenganako konparaziozko erlazio batean eraikiko dira.

Hau kontuan izanik, feminismo liberalak uste duenaren kontrara, indar armatuetan emakumeen kuota handitzeak ez du berez gizon soldaduen jarrera igualitario edo feminizatuago bat sustatzeko gaitasunik izango.

Boterearen ulerkerak zatituko ditu eztabaida honen parteak. Korrante antimilitaristak boterea dominazio bezala ulertzen du, egitura patriarkalaren baitan dagoen elementu zentral bezala (Allen, 1999). Izaera maskulinoan egituratutako praktika eta rolen zentraltasuna dela eta diziplina militarreko botere egiturek bereiziko dioten irmotasunean jarraituko dutela azpimarratuko dute. Honela, emakumearen presentzia egonagatik ere, boterea ez da gizonen ingurutik aldentuko, patriarkatua eta militarismoaren formak ukitu gabe utziz. Beraz, egitura militarretan emakumeek izango duten presentzia feminitate militarizatuak sortuko ditu, genero dinamika desigualak naturalizatuz

Feminismo liberalak aldiz perspektiba indibidualista batetatik jorratuko du boterearen afera, boterea baliabide gisa ulertuz; gizon eta emakumeen artean banatua izan ahal den elementu gisa. Ikuskera honetatik, boterea gizabanakoak mantenduko dute eta berdintasunaren aldeko borroka, espazio publikoaren baitan dauden eskubide sozialen lorpenean eta botere ekonomiko, politiko eta militarretarako sarbidean (partehartze kuotan) oinarritu da. Garrantzitsua da aipatzea, honakoa izan dela iparralde globaleko herrialdeetan eta nazioarteko sisteman emango den ikuskera nagusia dela (Pérez de Armiño, 2012).

Feminismoaren alde antimilitaristak irakurketa sinplista bezala ikusten du azken hau, botereak genero erlazioek eragindako menderatze forma ezberdinak ahazten direla

salatuz²⁶. Azken finean, menderakuntzan finkatutako erlazioak, obedientzia helburu egituratutako erlazioak izango dira. Horregatik korrante honen aburuz, ezinezkoa izango da boterea gizon eta emakumeen artean birbanatzea, boterea erlazio moduan ulertzen denean eta erlazio hauek modu desigualean egituratu direnean.

Hontaz, boterearen kontzeptualizazio honek, mendebaldeko armada gehienetan emakumearen sarreraren aurrean jarrera kritikoa izatera eramaten dio feminismoaren alderdi antimilitaristari.

Azpiatal honekin bukatzeko, espainiako indar armatuen adibidearekin jarraituz, aipatu beharra dago zenbait eraso sexista salatu direla emakumea espainiako indar militarren parte izaten sartu izan denetik²⁷. Eraso hauek kultura militarren baitan errotutako genero sozializazio forma hierarkikoak markaturik egongo dira patriarkatuaren alde bortitzenaren adierazgarri. Azken batean, sozializazio forma hauek maskulinitate militarizatuen inguruan antolatuko diren arau eta kode militarrek egituratuko dituzte, botere sozial zein kulturala gizonaren inguruan sotengatuz. Honebestez, biolentzia dinamika hauek desegituratzeko maskulinitate militarizatuen eraikuntza ulertzea ezinbesteko alorra izango da.

²⁶ Honakoa arrazoitzeko, Weberrek boterearen inguruan egindako lanetan oinarrituko dira. Weberrek dominazioa botere forma mota bezala ulertuko du. Honela, subjektu batek existitze hutsagatik beste baten obedientzia “naturalki” emango den botere forma dominazioa da.

²⁷ 5. atalean sakonduko da.

4. KULTURA MILITARRA ETA PATRIARKATUA: Patriarkatua eta militarismoa, militarizazio prozesuen sostengu

Behin indar militarren analisia eginda, sozializazio eredu militarrek patroiz argi bat jarraitzen dutela berretsi da. Horiek horrela, maskulinitate militarizatuen erreprodukzioa egitura militarren sostengurako ezinbesteko elementua dela ikusi dugu. Sozializazio eredu hauek ez dira bakarrik egitura militarren barne emango; militarizazio prozesuen baitan aurkitu ahal izango ditugu, gizartearen eremu ezberdinetan erreproduziturik. Horregatik, lanaren haria jarraituz, atal honetan, militarizazio prozesuak nola ematen diren ikusiko dugu. Militarizazio prozesuak aztertzeko, ingurune militarren antolamendu eta kultura ikusi eta sustatzen diren genero dinamikak aztertuko dira.

Militarizazio prozesu guztiek justifikazio errelato bat duten haien baitan, eta hauek ulertzea ezinbestekoa da testuinguru hauetan indartzen diren dinamikak ulertu nahi baditugu. Azken batean, justifikazio horien inguruan eraikitzen delako militarizazioa eta gorputz militarizatua.

Aztergaietan azaldu bezala, testuinguru militarizatuaren armen inguruan antolatutako maskulinitateek, botere eta kontrola metatzen dute gatazka armatuen testuinguruez baliatuz. Testuinguru hauetan, genero dinamika desigialak indartuko dira patriarkatuaren egitura hauspotuz eta militarismoaren erroak indartzuz.

Militarizazioa estamentu militarrek gizartean, politikan, ekonomian eta hezkuntzan zuzenki parte hartu eta eragiteko bultzatzen duen prozesua da (Miralles Crespo, 2016). Honela, arazo edo egoera bat gutxika, gradualki militarren kontrolpean edo ideia militaristen baitan geratzen denean, patriarkatua eta militarismoa indartuko dira militarizazio prozesuak naturalizatuz.

Patriarkatua indartuko dela esaten denean genero zapalkuntza dinamikak erreproduzitzen dituen egitura indartuko dela baieztatzen da; egitura sozial honek gizonetako giza garapenaren eskala altuago batean kokatuko du emakumeen kalterako. Hierarkia honetan oinarriturik, lan eta aberastasunen banaketa sexuala antolatzen da genero dinamika desigialak naturalizatuz (Filigrana, 2020). Honela, historian zehar patriarkatuak maskulinitateen jardutearen bitartez botere ekonomiko, politiko eta sozialaren metaketa gizonen inguruan sostengatzea ahalbidetu du (Cala eta Calvo, 2019).

Bestalde, militarismoa gizartearen kontestu ezberdinetan aukera militarren nagusitasuna da, maskulinitate militarizatuen inguruan eraikiko dena; egitura militarrek “gizonen” espazio kontsideratu izan direlarik.

“RAEK” militarismoaren hiru definizio ezberdin eskeintzen ditu (Real Academia Española, d.g.):

- Nazio baten politikan eta gobernuan alderdi militarren nagusitasuna.
- Militarismoa aldarrikatzen duenaren pentsaera.
- Erasoaldi baterako eta gerrarako prestatuta dagoen organizazio militar baten sostengatzea bultzatuko duen estatu politika sendoa.

Militarismo eta patriarkatuaren arteko osagarritasun eta erreprodukzioa kultura militarrean zein gizarte zibilean ematen da. Erlazio honetan militarismoak patriarkatuaren beharra du egitura militarren sozializazio arauak sostengatzeko. Hau da, militarizazio prozesuetan militarismoaren oinarriak gizartean sustatu eta integratzeko, patriarkatuak egitura sozial bezala historikoki erreproduzitu izan dituen jarrera eta genero arauak mobilizatuko ditu. Honela, militarismoak beharrezko dituen genero egitura hierarkiko eta desigualen erreprodukzioa hasupotzen du.

Modu berean, patriarkatua militarismoaz baliatuko da genero egitura sozial “legitimo eta natural²⁸” bezala sostengatzeko. Beste era batera esanda, balore militaristek patriarkatuaren egitura indartuko dute gizartearen erlazio prozesu ezberdinetan.

Ipar globaleko gizarte zibilaren egunerokoan balore hauek duten gaurkotasuna erraz ikusi daiteke. Militarizazioa eremu ezberdinetan sustatzen egongo den elementua da: Esaterako umeak jokoan bitartez gaztetatik hasiko dira soldaduen rolak barneratzen, bai eskolan, bai produktu kulturalen kontsumoarekin, zinemagintza, bideojokoak, jostailuak etab. Honela, produktu kultural anitzen bitartez biolentzia goizetik naturalizatuko dute umeek eredu militarren balioespina sustatuz (Miralles Crespo, 2016).

Aisialdiko eta sozializazio eremuetako produktu kultural militarizatu hauetan, heterosexualitate oldarkorraren demostrazio konstantea aurkitzen da atxikiturik. Honela, heterosexualitatearen, “maskulinitate hegemonikoaren” eta oldarkortasunaren arteko erlazio zuzen bat garatzen da mutil gazteen artean (Goldstein, 2001 en de Lluc Bagur eta Ribes, 2019).

Hontaz, patriarkatuaren eta militarismoaren elkarelikatze dinamika hau ez da indar armatuetan bakarrik ikusiko, bestelako gizarte egituren baitan emandako praktiketan aurkituko da inpliziturik ere.

Dinamika hauen logika jarraituz, gizarte batek ideologia militarista gero eta barneratuagoa izan, gero eta errotuago aurkituko da patriarkatua erlazio sozialetan (Duncanson, 2009). Ideia hau gizartean errotu ahala, erantzun militarren beharrezana indartuko da arazo zehatz baten aurrean, aukera militarra naturalizatuz eta legitimatuz; bai alor instituzionalean, zein ideologiko edo ekonomikoan (Enloe, 2000).

Ondorioz, prozesu honen bidez indar armatuaren erabilera legitimatzea bilatzen da ere, balore eta izate militarren presentzia gizarteko alor ezberdinetan sustatuz eta “bide militarra” gatazka konpontze modura aurkeztuz. Hau, era eta intentsitate ezberdinetan ematen da, gizarte bakoitzak duen testuinguruari moldatuz.

Era berean, militarizazioa angelu eta perspektiba ezberdinetatik bideratzen da gizartearen barne eta kanpo egituretara zuzenduz (Calvo Rufanges, 2015) :

²⁸ Baieztapen hau, militarizazioak patriarkatua naturalizatu eta legitimatzen duelako egingo da, eta ez patriarkatua izatez edo berez egitura sozial legitimo eta naturala delako.

- Kanpoaldera: egitura militarren gizarteratze kanpainetan. Egitura sozial ezberdinetan duten influentziaren eskutik balore militarren gizarteratzen da gobernuen oniritziarekin. Honela alor ekonomikoa, politikoa, hezkuntza edo osasuneko²⁹ erabaki estrategikotan parte hartuko du estamentu militarrek.
- Barnealdera: Egitura militarren parte diren soldaduek, erlazio militarrek barneratzen duten obediencia eta diziplinan oinarritutako biolentzia hierarkizatua xurgatzen dute. Honela, militarrek heziketa militarren emaitza diren deshumanizazio prozesuak sufritzen dituzte, prozedura guzti hau zalantzan jartzen duenaren kontrako barne errepresio mekanismo gogorrak ezarriz.

Hein batean, gizarte batek gerra testuinguruan dagoela barneratzen duenean, gerraren zerbitzura dauden baliabide material guztiak mobilizatzeari gain, giza baliabideak ere mobilizatu dira, balore eta gaitasun zehatz batzuk erabiliz militarizazioa bultzatuz. Egitura militarren baitan emandako dinamika sozial zorrotz hauek maskulinitateari atxikitutako balore, estereotipo eta gaitasun zehatz batzuk pribilegiatuz sustatzen dira, marko normatibotik aldentzen diren identitate sexual eta bestelako izaerak baztertzen direlarik. Modu honetara, gerrarako giza baliabiderik eraginkorrenak bilduko ditu patriarkatuak eskainiko dion banaketa sexualaren bitartez eta ordena patriarkala sendotuz (5.2 atalean ikusiko den bezala).

Hontaz gerra testuinguruetan emandako identitate tradizionalen sustapenarekin, patriarkatuaren sostengu nagusitarikoa izan den lanaren banaketa sexuala mobilizatzen da. Hemen, alor publikoan gizonak duen presentzia babestuko da, emakumearen egitea alor pribatura gehiago mugatuz. Egitura sozial hau, gizarte modernoan oinarri politiko eta ekonomikoa izanik, biolentzia fisiko eta sinbolikoa, emakumeen kontrol eta menderakuntza erreminta da (Segato, 2003).

Bestalde, kontuan izateakoa da militarizazioa testuinguruaren arabera laztu daitekeela. Hauda, mehatxu mailaren intentsitatearen arabera handituko den prozesua da militarizazioa. Azken batean, militarizazio prozesuaren baitan mehatxuaren forma aurkitzen da inpliziturik bai gizarte zibileko espazioen militarizazioan zein egitura militarren baitan emandako espazioetan. Kontestu honetan, gizabanakoak mehatxua zenbat eta hurbilago sentitzen duen heinean prestutasun handiagoa adieraziko du bere bizitzaren militarizazioa onartzeko. Eta berdin gertatuko da estatuarekin, bere segurtasuna mehatxaturik ikusiz gero bide militarren erabilera justifikatuta ikusiko du politika militaristak eta bide militarra indartuz (Calvo Rufanges, 2015).

Hortaz, mehatxuaren hautemateak sekulako garrantzia hartuko du segurtasun eta defentsa politiketan. Horregatik, diskurtsoaren monopolioa izatea berebizikoa da bizitzaren espazio ezberdinen militarizazioa bideratzeko eta gizartearen oniritzi eta justifikazioa lortzeko.

²⁹ https://www.elconfidencial.com/espana/2020-04-12/el-general-de-hierro-que-queria-acabar-con-los-lunes_2543023/ Hemen, espainiako estatuko osasunaren militarizazioaren adibide argia ikusi daiteke.

Honakoan, identitateen sorkuntzak ezinbesteko rola du eta nazioaren inguruan batuko diren identitate bateratzaileak sortzeko eta era bateratuan mehatxuaren kontra borrokatzeko. Hemen etsaiaren eraikuntza estereotipatua bultzatzen da bestetasunaren mobilizazioaren bitartez (korrante postkolonialak salatuko duen modura). Azken hau, ezinbestekoa da militarismoaren sostengu ideologikorako, “bestean” etsairen figura erantsiz. (Huertas, Torres eta Pérez, 2011).

Europa mailan emandako imigrazioaren militarizazio prozesuan esaterako migrazio fluxu irregularrak mehatxu bilakatu dira. Gizartearen militarizazioari begira, fluxu hauetan mehatxuaren irudia migranteak hartuko du, arabiar, latinoamerikar edo Saharaz hegoaldeko afrikarren gorputzena esaterako. Honela, militarizazio prozesuak hauspotuko dituzten diskurtsoen lehen planoan agertzen dira deskribatutako jatorri ezberdinetako pertsona hauek. Prozesu honetan, estigmatizazio gogorrak ematen dira, publikoki seinalatuko diren gizatalde hauen bizitzak egoera zaurgarrian utziz. Halaber, Europako kasuan migrazio fluxuak herrialde periferikoen mugan kontzentratuta gelditzen dira, indar armatu eta hesien bidez pertsona fluxu hauek gelditu nahi direlarik.

Hemen, militarizazioaren gorpuzkera argia ikusiko da, mehatxu kontsideratu izan denaren aurrean bide militarra eramanen. Baina bestelako ondorio batzuk izango ditu mehatxu honetatik “babestu” nahi den gizartearen mugen barne. Azken batean, gizarte horretan, Europa kasu honetan, mehatxuaren irudia gorpuztuko duten gizabanakoek militarizazio kanpainaren ondorioak sufrituko dituzte estigmatizazio sistematikoren ondorioz; poliziaren jarrera oldarkorra, arrazismoaren hedapena etab (Fundación porCausa, 2021).

Horregatik militarizazio prozesuetan ezinbestekoa izango da “bestearen” irudian egindako errelatoek, irudi hau gorpuzten duten bizitzetan duen eragina agerian jartzea (Pérez-Rincón, Vives, García eta Expósito, 2012).

Gerra testuinguruetakoa militarizazio prozesuek beste tankera bortitzago bat hartuko dute. Hemen, diskurtso gerrazaleak “beste” kontzeptua eraikiko du ere etsaiaren irudi estereotipatu eta antagoniko bat sortuz, eta kontrara aberriaren defendatzaile modura, hiritar “eredugarriaren” irudia eraikiko du³⁰. Guztien gainetik, mehatxua irudikatuko duen etsaiaren suntsipena da militarismoaren jomuga nagusia.

Kontestu honetan hiritar eredugarri eta aberriaren defendatzailearen inguruan eraikiko den maskulintate militarizatuen onspen soziala handituz joango da, bestelako identitate ez militarizatuak alde batera geldituko direlarik. Azken batean, gerrak eta militarizazioak bide militarra hartzeko prest dauden pertsonak beharko ditu, horregatik, gizartea bide militarrean erakartzeko patriarkatua eta militarismoa mobilizatuko dira maskulintate eta feminitate militarizatuen identitateen indartzean.

³⁰ Irudi eta jarrera hauek gerra testuinguruetan izango dute presentzia handiagoa, gerrarik ez dauden testuinguruetan intentsitate askoz ere baxuagoan ematen delarik.

Egoera honetan, hegemonikoak ez diren identitateak, maskulinitate militarizatuekin identifikatzen ez direnak hain zuzen, bigarren plano batean geldituko dira, aberriaren traidorearen itxura hartuz. Azken joera hau, etsaiaren irudiarekin nahastatu daitezke, haien gorputz eta bizitzak arriskuan jarritz; gerra gabeko testuinguruetan gorputz zaurgarriak tratatzeko onargarriak ez ziren jarrerak gauzatzeko eremu bat zabalduko da etsaiaren agerpenaren aitzakiarekin (Miralles, 2016). Hala nola, gizartearen militarizazioaren eragin zuzenatariko bat, genero biolentziaren, homofobia eta xenofobiaren areagotzea izango da³¹.

Honenbestez, indarkeria hauek, gatazka aurreko egiturazko indarkeriak dira, baina behin gatazka bukatuta, gizartean bizirik jarraitzen dute patriarkatuaren egituraren baitan. Egoera honetan Cynthia Cockburn-ek gurera ekarritako biolentzien “continuum-a” aurkituko da inplizitua, non emakumeak zein bestelako identitate ez hegemonikoak jasango duten biolentzia ezberdinak, egitura sozialaren indarrez datozen txertatuak (Cockburn, 2010).

Honela, egiturazko biolentziak jarraitzen duen bitartean gerraren eta bakearen arteko muga lausotuko da (Martínez-Restrepo, et al., 2021). Horregatik, militarizazio prozesuetan emandako biolentzien legitimazioen ondorioz sujetu zaurgarrienak pairatuko dituzten diskriminazioak izan beharko dira kontuan. Zehazki, legitimazio honek naturalizatu eta betikotu ez daitezten.

Indar armatuak, gizaartea arautzen duten legeen aurrean, biolentzia eragile legitimoak direla kontuan izanik ezinbestekoa izango da haien barne ematen diren dinamikak ulertzea erasandako biolentzien –bai marko legal militarren barne daudenak (gerran etsaiaren hilketa) zein markotik kanpo (zibilen kontrakoa edo soldadukideen kontrakoa) azterketa burutzeko.

Biolentzia hauek generoak zuzenki markatutako dinamika sozial batzuek sostengaturik aurkitzen dira, indar militarren egitura hierarkikoak dituen maskulinitate militarizatu eta feminitate militarizatuen inguruan hain zuzen. Azken batean, indar armatuek osatutako egitura sozial zorrotz hauek maskulinitateari atxikitutako balore, estereotipo eta gaitasun zehatz batzuk pribilegiatuko ditu, marko normatibotik aldentzen diren identitate sexual eta bestelako izaerak baztertuko dituelarik (Miralles, 2016).

Militarismoaren eragile nagusi diren indar armatuetan genero dinamika hauek nola erreproduzitzen diren aztertzea ezinbestekoa izango da soldaduek eragindako biolentzien erroetara heldu eta eremu militarrek gizartearekin duen erlazioa ulertu nahi badira. Modu honetara, eremu militar zein zibiletan eraikitako ordena hierarkiko hauen desnaturalizazioa ezinbestekoa izango da bere barne egiturak gordetzen dituen ezberdintasun eta biolentziak ikusgai egiteko.

³¹ Generozko ordena sozialean maila baxuenetan egongo diren identitate eta gorputzak izango direnak.

5. MASKULINITATEAK SOLDADUARI FORMA EMATEN: GORPUTZ ZIBILETIK SOLDADU MILITARIZATURA

Orain arte lanean zehar landutako atal ezberdinetan maskulinitate militarizatuak diarduten testuinguruak arakatu dira. Honela, segurtasun kontzeptualizazioak analizatu, gerren ezaugarrien eraldaketari erreparatu eta ingurune militarizatuetan ematen diren genero erlazioak ikusi dira. Esparru hauen analisia aurrekari bezala izateak soldaduen maskulinitateak ulertzera hurbilduko gaitu, hauek garatu eta indartzen diren inguruneak nola funtzionatzen duten ideia argi bat izanik. Hurrengo atala, soldaduen maskulinitateen eraikuntzan zentratuko da, maskulinitateen kontzeptua eta soldaduaren heziketa militarra ongi aztertuz.

Maskulinitateak kontzeptualizatzea eta hauen inguruko analisia burutzea ezinbestekoa da kultura militarrean txertaturik dauden maskulinitate anitzen eraikuntza ulertzeko. Azken batean, maskulinitate militarizatu hauek lotura zuzena izango dute gizartearen egunerokoan emandako emandako genero erlazioekin. Halaber, kultura militarrean emandako genero erlazioek bizitza zibilean erreproduzituko diren errealitate ezberdinen islada izango dira. Beraz, kultura militarrean gizonen inguruan boterea nola metatzen den ulertzeko maskulinitateen kontzeptualizazioa burutzea ezinbesteko alorra izango da.

5.1 Maskulinitateen kontzeptualizazioa

Maskulinitateak gizarte edo kultura batean ezarritako ordena sozial eta sexualaren baitan ematen diren gizon izateko era ezberdinak dira. Hauek, diferentzia sexual biologikoaren bitartez dira esleituak gorputz bakoitzean, eta testuinguru sozial, ekonomiko eta kultural ezberdinek markatuko duten gizon izateko patroia eta rol multzoek egituratuko dituzte (Connell, 2015).

Maskulinitate eta feminitateen arteko erlazioak ordena sozial hierarkiko batera itsatsita daude, eta oinarri material argiak ditu subjektu ezberdinen bizitzetan³². Horregatik, naturalki edo berez genero maskulino eta femeninoari egozten zaizkien rol eta praktika sexualak gorputzetan inskribatutako arauaketa multzo arbitrarioak izango dira, sexuen arteko esplotazio materiala bermatuko dutenak (Preciado, 2011).

Ordena sexuala honetan definitutako arauak soziokulturalak izanik, maskulinitateak prozesu sozialen bitartez transformatuz joango dira harreman eremu ezberdinetan: Familian, eskolan, lantokian etab. Era berean, genero erlazioen baitan gizona izateko

³² “Gizon-emakume kategoria, zuria-beltza eta ugazaba-langilea bezala, kategoria soziopolitiko eta ekonomikoak dira, ez kategoria zientifikoak, eta ez dute diferentzia artikulatzen, esplotazioa baizik” (Goikoetxea, 2015).

balorazio irizpide berriak agertzen diren heinean, haien identitate eta izatea berregituratuz joango da³³.

Beraz, aztergaiari aipatu bezala, maskulintateez mintzo garenean ezinbestekoa izango da pluralean egitea, elementu honen inguruan tankera anitzeko izaerak aurkituko direlako eta testuinguru sozialak markatutako faktore ezberdinek zeharkaturiko elementua delako³⁴.

Genero mailakatze hierarkikoa ongi azalduko du Raewyn Connellek “maskulinitate hegemonikoaren” kontzeptuarekin. Honela, maskulinitateen ikasketen erreferente nagusietako bat izanik, teoria grasmciarraren “hegemonia” kontzeptua erabiliko du erlazio sozialetan ematen den genero menderakuntzen naturalizazioa azaltzeko (Connell, 1995).

Hegemonia, dominazio formak erreproduzituko dituzten balore eta jokaera ikusezin multzoa da. Hierarkian sostengatuko diren erlazio hauetan ez da sujetu dominantearen kontrola eta boterea zalantzan jarriko, kontrara arau kontsideratuko dira (Bergström – Boréus, 2005). Gauzak honela, hegemonia erraminta analitiko bezala erabiltzearekin, gizartean onartuta dauden botere erlazioak zalantzan jarriko dira. Kontzeptu honek, sistemarengatik izkutaturik geratuko diren zapalkuntza formak, eta hauek sortutako biolentziak desnaturalizatu eta botere egituren dominazio sistema kritikaren zentruan jarriko ditu.

Guzti honekin, maskulinitate hegemonikoa 1980. hamarkadan hasiko da kontzeptualizatzen Connellen lanen eskutik. Connellek, gizotasunaren nagusitasun bezala definituko du maskulinitate hegemonikoa, eta honekin genero botere erlazio sozio-historikoen azterketa bideratuko du emakumeenganako kontrola ulertzeko. Maskulinitate hegemonikoa, testuinguru zehatz batetan historikoki boterea lortzeko eta atxikitzeko erabili izan dituen forma eta praktika zehatz batzuk barneratuko ditu, betiere, hegemonia sostengatzeko prest dauden gizon eta emakume andanaren inplikazioarekin (Hearn, 2004).

Alabaina, maskulinitate hegemonikoa bestelako maskulinitate eta feminitateen oposizioan emango den eraikuntza da, hauenganako elkarmenpekotasunezko erlazio eta etengabeko negoziazio eta berregite prozesu baten barne inskribaturik dagoen elementua

³³ Hain zuzen, ez da berdina izango 1950. hamarkadako Europako gerraosteko gizon langilearen maskulinitatea edo XVII. mendeko Europako gizon burgesarena. Haien gizotasuna, faktore oso ezberdinek definituko dute eta horregatik egungo maskulinitateak ulertzeko, prozesu historiko ezberdinetan emandako aldaketak izan beharko dira kontuan, esan bezala aldaketa hauek definituko dutelako gizonaren izatea prozesu politiko gisa (Connell, 2015).

³⁴ Maskulinitateak hobeto ulertzeko burututako saiakera honetan, generozko harremanetan ematen diren botere erlazioen nondik norakoak ulertu nahiko dira, gizonak bereganatzen duten nagusitasuna ulertu eta kontzeptualizatzeko. Hau da, atal honetan ez da maskulinitatea rol sexual generiko bezala tipifikatuta aurkituko, erlazio sozialetan gizona izateko emandako prozesu sozio-historiko bezala baizik (Connell 2004).

izanik (Connell, 2015). Hau da, elementu anitza eta aldakorra da, aldaketa sozial eta historikoei loturik egongo dena.

Honenbestez, patriarkatuak egituratutako genero banaketa hierarkikoa jarraituz, gizartean gorpuzkera ezberdineko maskulinitateak aurkituko dira; gizon izateko era hegemonikoa erreproduzituko dutenak alde batetik. Eta bestetik, gizarteak gizonetan esperotako (eta sozialki onartutako) maskulinitate irudia gorpuzten ez duten gizabanakoak: Arraza, etnia, klase, sexualitate eta bestelako faktoreengatik gurutzatutako gorputzak hain zuzen. Faktore hauek gizontasun irudi hegemonikotik aldentuta egongo dira (Cala, 2019).

Azpitarratu beharra dago faktore ez hegemonikoak izateak, pisu ezberdina duela testuinguru zibil edo militar batean. Azken honetan sozializazio arauak zorrotzagoak direlako eta talde dinamiketan onespren soziala lortzea zailagoa suertatuko zaielako hegemoniatik aldentutako gizabanakoei, azken batean talde izatea, identitate hauetatik urrun dagoen elementua da.

Honen harira, maskulinitate multzo zabalean gero eta garrantzi handiagoa hartzen hari dira maskulinitate berriak³⁵ eta hauek planteaturiko gizon eredua.

Maskulinitate berrien agerpena ezingo da ulertu globalizazioaren prozesuak ekarritako aldaketa sozial guztiak kontuan izan gabe. Gizontasun forma modernizatu hauek, sozializazio eredu parekideagoak bultzatuko dituzte, gizontasuna bizitzeko modu errespetutsuagoak sustatuz (Hearn, 2004). Orobat, gizarteak barneratuta dituen balore eta arauak eztabaidatzen direnean, maskulinitate eta feminitateek birpentsatze prozesu bat pairatuko dute ere.

Alabaina, maskulinitate berrien inguruan emandako transformaketa positiboa dirudien arren, mantenduko diren botere erlazioetan arreata jartzea ezinbestekoa izango da jarrera hauek “ontzat” edo parekidetzat hartu baino lehenago. Azken batean, gizartea eta patriarkatua³⁶ definituko dituen oinarritzko ezaugarri eta baldintzak aldatzen diren heinean, maskulinitateak menderatzea jarduteko dituen formak ere transformatuz joango dira. Honela, bigunagoak eta parekideagoak diruditen maskulinitate hauek dominaziozko formak erreproduzitzen jarraitzeko arriskua izango dute (Azpiazu, 2017).

³⁵ Maskulinitate berrien inguruan eraikiko den gizon ereduak atzean utziko du “eskola zaharreko” gizon klasikoa. Askotan maskulinitate hegemonikoarekin nahasi den gizon eredua da hau: gogorra, biolentoa, familia aurrera daramana, langilea etab. Eredu hontatik bereiztearen bitartez eraikiko da egungo maskulinitate normatiboa.

³⁶ Patriarkatua, gizonaren hegemonia materiala eta diskurtsiboa biltzen duen genero-sistema bat da, beste botere eta zapalkuntza mekanismo batzuekin dinamikoki elkarrengaitan duena (Hearn, 2014). Beraz, alde batetik genero-sistema materiala da, ekoizpen-moduak egituratzen baititu, gizonen nagusitasuna indartu eta erreproduzitzeko ezinbesteko direnak. Eta bestetik diskurtsiboa da, gizonen gizarartean duten nagusitasunari eta zentraltasunari eusten dioten genero-eraikuntzak sustatzen eta lehenesten dituelarik. (Pérez, (2018).

Banakakoek modu ezberdinetan gorpuztuko dute prozesu hau; alde batetik hegemoniak gizon eta emakume bezala haiengandik espero duena erreproduzituko duten banakakoak aurkituko ditugu, boterea hegemonikoa sostengatuko dutenak; eta bestetik korrontearen “kontrara” ibiliko diren maskulinitate disidenteak errotuko dira (Azpiazu, 2017).

Argi izan behar da ordena soziala mantentzeko hegemonia duen oinarrizko ezaugarria ez dela biolentzia zuzena erabiltzeko “eskubidea” izango, agintea eta boterea mantentzeko duen eskubide “naturala” baizik. Oro har, askoren esanetan, egungo maskulinitate hegemonikoa maskulinitate berrietatik gertuago kokatu daiteke; gizon heterosexuala, sentikorra eta emakumeak errespetatzen duena ³⁷(Connell, 2015).

Berez izaera biolentoak gorputz ez hegemonikoek gurutzaturiko maskulinitateekin identifikatuko ditu gizarteak: Klase baxuko gizonetan edo gizon arrazializatueta esaterako. Honela, testuinguru latzetan bizi diren mutil eta gizonetan, instituzioak heltzen ez diren eremuetan, gizontasuna biolentziarekin egongo da zuzenean gurutzaturik: “Ghetto” edo egiturazko biolentzia gordinen artean bizi diren diren gizabanakoen gorputzak irmoki markatuta aurkituko dira bizi duten errealitatearengatik. Ondorioz, agresibotasunaren berezkotasuna testuinguru hauetan bizi diren gizon taldeen identitateari esleituko zaie, biolentziaren fokoa gizontasun hegemonikoetatik aldenduz (Giraldo eta Quílez, 2000).

Honegatik, maskulinitatea begi bistakoa da gorputz ez hegemonikoetan atxikiturik dagoenean, hau da langileen, latinoamerikarren, baltzen edo bestelako identitate subordinatuen gorputzetan dagoenean (Azpiazu, 2017).

Halaber, hegemoniatik aurkeztutako gizon eredu izatera gutxi batzuk iristen diren arren, beste askok modelo hegemonikoa sostengatzera laguntzen dute. Azken hauek, genero sexu banaketak gizon normatiboa izateagatik emango dieten pribilegioez baliatuko dira (Connell, 2015).

Pribilegio hauek produzitutako desberdintasunak giza harremanetan hasiko dira saretzen, horregatik maskulinitateak ezingo dira ulertu feminitaterik gabe. Azken batean, erlazio forma hauen existentziarako bestearen, feminitatearen edo bestelako maskulinitateen, oposizioan izango direlako eraikiak. Honela, diferentzia sexualaren logika bitar honetan, generoa “bata edo bestea” bezala kontzeptualizaturik geldituko da. Zehatzago esanda, “bata” maila hierarkiko gorenean agertuko da subjektuaren posizioan, “bestea” bigarren posizio batetan baliogutziturik geldituko den bitartean, objektuaren tokian (Meler eta Burin, 2000) . Azken batean militarismoak etsaia definitzeko erabiliko duen

³⁷ “Egun dugun maskulinitate hegemonikoaren eredu, askoz ere zuhurragoa da, eta itxuraz ez da jarrera matxistekin identifikatzen, baina honek ez du eredu berdinzalea bihurtzen: ez du nagusitasun maskulinoa goraitpatzen, ala ere, bere egunerokoan praktikan jartzen du”. (Azpiazu Carballo, Masculinidades y Feminismo, 2017)

estrategia berdineren loturik aurkituko da, binomio hauetan generoaren mailakatzeko hierarkikoa berezko elementua delarik.

Esan bezala, maskulinitate hegemonikoaren ezaugarri nagusia hegemonian mantentzeko duen berezko moldakortasuna da, hau da gizartearen exigentzia eta bizi eredu berrien aurrean maskulinitateak botere maila galdu gabe testuinguru berrietara moldatzeko duen gaitasuna izango da.

Dominazio formak ikusezin bihurtzeko maskulinitateek bideratutako prozesu honi pragmatismo dialektikoa deituko zaio (Demetriou, 2001 en Cala eta Calvo, 2019). Honela, maskulinitate hegemonikoaren irudiarentzako baliagarria ez dirudiena edo kaltegarria dirudiena ezabatu edo menderatu egiten da, balio historikorik ez duelako. XX. mendeko maskulinitate hegemonikoa irudikatuko duen gizona zaharrikutik geldituko da; familia gizona, sentimendurik adierazten ez duena, etxera dirua eramanez familia elikatzen duen sujetua, aberrizalea etab. Gizontasun irudi hau indarra galduz joango da merkatu logika neoliberalak globalizatuz joan ahala, eta ondorioz, maskulinitate hegemonikoaren irudi berriztua transformatu da: Lan arloan arrakastatsua den gizonaren heterosexuala, familian parekidetasunezko jarrerak burutzen saiatzen dena etab.

Prozesu honetan maskulinitateak ez du kontra hegemonikoak eta progresistak diruditen identitate eta praktikak bereganatzeko ez bairik izango, hauek erabiltzea komeni bazaio. Modu honetara, itxuraz genero harreman parekideen alde dauden maskulinitateak patriarkatuaren berebiziko sostengu bilakatuko dira praktika zapaltzaileak hautemanezinak bilakatu. Hibridismo hau, maskulinitateen produkzio historikoaren prozesu aldatzaileari egongo da loturik eta ezinbestekoa izango da gizonaren botere eta kontrola ikusezin bihurtzeko.

Puntu hontara helduta, maskulinitate eta feminitateak tipifikatzearekin edo hauek hartzen duten itxura deskribatzearekin nahikoa ez dela ikusiko da, honek ez duelako berez patriarkatuaren genero sisteman emandako botere erlazioen funtzionamendua azalduko.

Zentzu honetan, ingurune militarretan emango diren prozesu sozialetan generoak duen zentraltasuna dela eta, ezinbestekoa izango da botere egituren funtzionamendua analizatzea. Orobat, soldaduen deskribapen hutsetik haratago joateko, maskulinitate militarizatu hegemonikoen kontzeptua gurera ekarri beharko da.

5.2 Gerlari eta zaindaria: maskulinitate eta feminitateak gerra testuinguruan

Militarizazio prozesuek gerra elikatzen ezinbestekoak diren maskulinitate eta feminitate modelo zehatz batzuk produzituko dituzte. Prozesu hauetan gorputz ezberdinetan eraikiko diren maskulinitate eta feminitateetan arreta jartzeak, generoak testuinguru militarizatuaren duen zentraltasuna ulertzera eramango gaitu. Azken batean, patriarkatuaren bereizgarri den gizon emakume dikotomiak sorturiko botere erlazioek

hierarkia argi bat eraikiko dute generoaren inguruan, izate maskulino militarizatuen hegemonia indartuz.

Feminismoak zuzenki seinalatuko ditu ingurune militarren barnean erreproduzitu eta mobilizatuko diren genero desberdintasunak, hauen inguruan eraikitako “berezkotasun naturalaren” errelatoa desmontatuz. Honetarako biolentziak naturalizatuko dituen logika biologizista atzean utzi eta genero diferentziak sozialki eraikiak diren elementu bezala ulertuko ditu feminismoak³⁸.

Oro har, tradizionalki maskulinitateak gerrarekin eta kultura gerlariarekin lotzen diren antzera feminitateak ere bestelako eredu sozialekin lotuko dira, bakerarekin edo pazifismoarekin hain zuzen (Yuval Davies, 1996). Gauzak horrela, gerrak estatu edo aberriaren defentsan hil eta hiltzeko prest dauden pertsonak behar izango dituen modura, ugalketa eta zaintza lanak egiteko prest dauden pertsonak beharko ditu (Miralles Crespo, 2016). Testuinguru honetan, feminitate konkretu baten mobilizazioa emango da, haiengandik eskatzen dena beteko dutena logika militarrek sostengatuz.

Hortaz, gatazka testuinguruetan patriarkatuak bereizitako maskulinitate eta feminitate banaketa tradizionala indartuko da militarismoaren probetxurako; feminitatea eta zaintzaren arteko lotura sendotuz, eta kontrara gizontasuna gerrarako dohaiekin lotuz. Genero rol tradizionalen mobilizazio hau ezinbesteko elementua da gerraren mantenurako (Miralles Crespo, 2016). Beraz, gerra garaiko portaera patroiek, gidoi patriarkal bati jarraituko diote gizonen indarkeriarako duten gaitasun naturalean eta emakumeen bakegintzarako eta zaintzarako berezko gaitasunean oinarrituz, pertzepzio hauek indarkeria patriarkal pribatuarekin zuzenki lotuta daudelarik.

Zentzu honetan, maskulinitate hegemonikoaren kontzeptuak soldaduen izaeran eta hauen artean eraikitako botere erlazioak ulertzen lagunduko digute. Azken batean, kontzeptu honek maskulinitate militar anitzak identifikatu eta hauen funtzionamendua aurkeztuko digulako: Kadetearena, infanteriakoena, ofizialena, bulego lanetan diharduten militarrena etab. Hemen, maskulinitateekin loturiko ezaugarri estereotipatuak zerbitzu militarrekin edo ekintza militarrekin lortu daitezkezalaren ustea maskulinitate militarizatuak indartuko dituzte. Honen adibide borroka fisikoa burutzeko ahalmenaren eta maskulinitatearen arteko lotura. Finean, soldaduen militarizazioak gizon izatearen eredu handizkatuak barneratuko ditu, feminitatearen eta bestelako gizatalde gutxietuen debaluazio prozesu batean (Duncanson, 2016).

Modu honetara, maskulinitate militarizatuen erreprodukzioaren bitartez erlazio mailakatuak egituratuko dira egitura militarren barne. Lanaren sarreran aipatu bezala kontuan izatekoa da izaera hauek ez direla alor militarretan bakarrik erreproduzitu, gizarte zibilean aurkitu ditzakegun dinamikak baitira (Cala eta Calvo, 2019):

- Banakako gizon eta emakumeen ideia eta ekintzetan.

³⁸ “Ez da emakume jaiotzen: emakume izatera heltzen da” Simone de Beauvoirrek argi utziko du baieztapen honekin emakumea eraikuntza sozial bat dela (Simone de Beauvoir, 2000).

- Instituzioetan: estatuaren politiketan, indar armatuetan, enpresa militar pribatuetan edo nazioarteko erakundeetan
- Ideologian: norma sozialetan, komunikabideetan, zinegintzan, erlazio familiarretan, kultura herrikoian etab.

Horregatik, maskulinitate militarizatuek gizartea zibilean duten presentzia identifikatzea ezinbestekoa izango da egunerokotasunean ematen diren biolentzia ezberdinekin bukatu nahi bada. Honez gain, bide militarra bultzatzen duten errelato eta politiken atzean dauden interesen nondik norakoak ulertu beharko dira militarizazio prozesuei aurre egiteko. Militarizazio prozesu hauek, gerlaria definituko dute maskulinitate prototipo militarizatuak eraikiz. Honela, testuinguru sozial zehatz baten araberrako imaginarioak indartuz eta hauetan sustraituta dauden botere erlazioak erreproduzitzeko dituzte.

Kasu hauetan, gerlariaren irudiari dagokienez ez da berdina izango iparralde globaleko indar armatu ofizial batetako soldadu baten maskulinitatea, edo hegoalde globaleko gerrilla batean murgilduta dagoen soldadu gaztearena. Sujetu bakoitzaren eraikuntza, bizi den testuinguru eta egitura militarren baitan izango duen biolentzia eragitearen justifikazioak eragingo diolako. Hau da, atzean duen prozesu historikoak eta honen errelatoak zuzenki eragingo du maskulinitate militarizatuen eraikuntzan.

Hala ere, kasu askotan gerra eta militarismoak narratiba patriarkala albo batean utziko dute gerraren beharrezko horrela eskatzen dutenean. Halaber, tradizionalki gerra garaian gizonak kunplitu dituen egitekoetarako giza baliabide falta dagoenean, emakumeak berebiziko garrantzia hartuko du; gerra ekonomiaren baitan industriaren sostengurako emakumeen lan indarra beharrezkoa bilakatzen denean adibidez, edo alor militarreko zenbait egitekotan emakumezkoen “papera” beharrezkoa denean, espioitza lanak esaterako (Eichler, 2014).

Askotan, emakume askok alor pribatuko zereginak alde batera utzi eta alor publikoko egiteko estrategikoak burutzeraz igaroko dira. Errealitate hauek gerra tradizionalen baitan emandako prozesuak dira. Honen adibide zuzen izango da Bigarren Mundu Gerran emandako kasua bai European bai Amerikako Estatu Batuetan. Aitzik, behin gerra amaituta, emakumea espazio pribatura bueltatuko da, gerra garaian izan duten berebiziko jarduna ahanzturan utziz.

Oro har, gerra tradizionalen testuinguru hauetan ematen den errealitateari erreparatu gero, emakumearen paper aktiboa aurkitzen da behin eta berriro. Halaber, emakumea gizona lan esku bezala ordezkatzeko du, erizain bezala lan eginez, sexu lanetan, borrokalari bezala etab (Nordstrom, 2004). Hain zuzen, feminitate militarizatuek gerra testuinguruko gizararen berebiziko sostengu bezala jarduten dute gizontasun militarizatuen figura osagarria bilakatuz. Gerra berriek gatazka armatuak gauzatu eta bizitzeko modu berriak ekarri ditu, maskulinitate eta feminitate militarizatuen rola aldatuz. Eta genero rol tradizionalak indarra izaten jarraitzen duten arren, zenbait aldaera aurkitu ditzakegu gerra testuinguruetan egingo den patriarkatuaren mobilizazioan.

Hala ere, emakumeak gerraren biktima pasibo bezala aurkezten zaizkigu gatazka testuinguru gehienetan, aktibotasun egintza guztitik aldentuz eta aitortzen sozialik gabe. Modu honetara, emakumeak gatazken bigarren plano batera alboratu dira haien amatasun funtziora murriztuz eta izandako bizipen eta agentzia guztia ezerezean utziz (Mendia, 2008).

Honela, rol honetan murgildurik dauden emakumeak aberriarengatik leialtasunez eta modu desinteresatuan jardungo duten subjektu bezala aurkeztuko dira. Aipatzekoa da, Argentinan, Ipar Irlandan, Kurdistanen, Balkanetan edo Estatu Batuetan, gerraren kontra agertu diren emakumeak amaren posiziotik, emakumeak entzunak izango ziren toki bakarretik burutu dutela kontrakotasunezko jarrera eta gerrarako oposizioa.

Gizonarentzako aldiz, heterosexualitate oldarkorra, gizatalde baten parte izatea (indar armatuen edo aberriaren defentsaren parte), eta arrote emozionala, izango dira identitate maskulinoaren eraikuntzaren zutabe.

Maya Eichlerrek ongi erakusten ditu maskulintate militarizatuaren emandako aldaketak; honetarako bere kasu azterketan Errusia postsovietikoaren indar militarren aldaerak ikertzen ditu Errusia eta Txetxeniaren (1994-1996) arteko gerra³⁹ aztertuz. Egindako araketan elementu feminizatuen gutxitzean errotutako gerra errelatoak identifikatuko ditu, errelato hauek gerrarako maskulinitate militarizatuen mobilizaziora bideratzen direlarik (Eichler, 2014).

Gerrarako mobilizazio honetan, maskulinitate militarizatuari eta zerbitzu militarri zentzua emango dioten zenbait elementu zentral identifikatuko dira (Eichler, 2014): Sozializazio, hiritartasun eta betebeharrak patriotikoak osatuko dituen errealitate bezala aurkeztuko da, emakumearen papera maternitate patriotikoan ezarriz, haien semeak aberriarengatik hiltzeko prest zeuden ama bezala aurkeztuz.

Aterako duen ondorioetan, errelato militarista hauen eraginkortasun falta nabarmenduko du, hauek gerra ulertzeko elementu tradizionalak loturik daudela azpimarratuz. Honenbestez, mundu globalizatu berrian, gerra errelato tradizionalak ez dute lekurik izango gizarte zibila mobilizatzeko saiakeretan. Honetarako, Txetxeniako bigarren gerran gobernuak maskulinitate militarizatu tradizionalak berpizteko burutuko dituen heziketa patriotikoaren programek duten porrota erakutsiko du, gerra molde zaharrak atzean utziko direlaren hizpide.

Aldaera hauek, sistema neoliberalak nazioarte mailan izan duen eragina islatuko du, maskulinitate eta feminitateen eraberritze prozesuaren barne. Honen harira, egun onarpen sozial handieneko maskulinitate ereduak, arrakasta ekonomikoaren inguruan murgiltzen

³⁹ Errusiaren kasuan, sistema sozialista batetatik neoliberalismora igarotzearen jauziak, modelo antagonistak izanik, gizartean utzitako arazoak nabarmenak izango dira, eta honek alor militarrean zuzenean eragingo du. Azken batean, bloke sobietarraren erortzearekin estatu forma eta gizarte eredu zaharrak atzean utziko dira, eta kultura neoliberalaren hedapenarekin eraikitako molde sozial berriek indar militarrean zuzenki eragingo dute kultura militar sobietarraren moldeak zaharkiturik geldituz.

den gizona dela baieztatu daiteke. XX. mendean zehar, betebehar patriotikoa kunplitzuz aberriarengatik “bizitza eman”, eta bere lanaren fruituekin familia elikatzen zuen gizonaren imaginak garaiko maskulinitate moldeetan indar handia bazuen; egun, merkatu logika globalizatuaren bultzadaz arrakasta ekonomikoa lortzen duen gizonaren inguruan kokatuko da maskulinitate imaginario balioetsia.

Honela, ohorearekin, ausardiarekin eta abertzaletasunarekin atxikitutako gizontasun klasikoaren irudia, indarra galduko du modernizazio prozesuekin emandako paradigma berrien agerpenarekin.

Aldaketa guzti hauek kontuan izanik azpimarratu beharra dago oraindik ere gerra errelatoetan emakumeak babesteko borroka justifikazio bezala aurkitzen direla. Hala ere indarkeria militarrek emakumeentzako segurtasun gabezia handiagoak sortu izan ditu (Gentry, Shepherd eta Sjoberg, 2018).

Azken finean, biolentzia eta oldarkortasun mailen gorakadak sahiestezinak izango dira gatazka testuinguruetan. Alde batetik, oso balioetsitako jarrerak direlako, eta bestetik posizio soziala markatzeko ezinbesteko faktore direlako. Alegia, maskulinitate militarizatu hegemonikoaren eredutik at geratzen diren gizon izateak, koldarrak, nazioaren eta bere sexuaren traidore bezala irudikatuko dira (Yuval- Davis, 1996).

Honenbestez, gerran azaldutako hipermaskulinitatearen eta honi atxikitako biolentziaren arrastoak agertuko dira behin gatazka armatua bukatuta. Honen ondorio zuzen izango da biolentzien “continuuma”, gizonak galdutako dominazioa berreskuratzeko bidean biolentzia ezberdinak normalizatuko dituen. Azken batena, generoak gerra moldatuko duen antzera moldatuko du gerrak generoa (Goldstein, 2001 en de Lluç Bagur eta Ribes, 2019).

Amaitzeko aipatu beharra dago biolentziaren praktika hauek genero logikak produzitutakoak direla, eta egiturazko baldintzak indartzeko balioko dute. Horrela genero erlazioek guda egiteko moduak egituratuko dituzten modura, gizarteak baloratuko dituen maskulinitate ereduak estatuaren biolentzia antolatua muina dira ere. Gerraren praktika definituz eta soldaduaren erreklutatzea bultzatuz indartuko direnak (Gentry, Shepherd eta Sjoberg, 2018). Biolentzia hauek patriarkatuaren baitan erreproduzitzen dira egiturazko baldintza hierarikoak finaktuz.

5.3 Soldaduaren heziketa eta kultura militarra

Indar armatuek, makineria militarren egitekoa bete eta biolentzia eragile izatera heltzeko soldaduak prestatuko ditu heziketa militaristen batitan. Horrela, egitura militar hierarkikoetan inskribatutako diziplina eta autoritate zorrotzaren eskutik, obedientzia osoan hezitako soldaduak aurkituko ditugu. Laugarren atalean ikusi bezala, indar armatuen sozializazio ereduetan soldaduen joakera moldatuko dituzten arau moralek erlazio militarrek mailakatuko dituzte. Esaterako nagusi baten ordena ez betetzeak arau

hauste handi bat suposatuko du soldaduarentzako, kode militarren urratze honi dagokion zigorra aplikatuko zaiolarik (Heinecken, 2003).

Honela, kode militarra soldaduen izaeraren parte bilakatuko da, disziplina onartuz eta egiteko militarra marko moralista baten barneratuz. Marko honek biolentziaren erabilera legitimatuko du, hau da, soldaduek ez dute bizitza bat arrazoi gabe urratuko, eta ez dituzte hiltzaileen antzera gizabanakoak “erailko”, zenbait bizitzekin akabatzeko prest egongo dira “segurtasunaren” izenean. Marko honetan, ekintza militarren errelatoa ongi justifikaturik aurkituko da “kausa justu” bezala azalduz eta askotan zenbait bizitza kendu beharko dituztela ikasiz (French, 2003:3). Justifikazio hau burutzeko soldaduek sekuritizazio errelato bati erantzungo diote era mekanizatuan maila gorenetan dauden buruzagien ordena jarraitzeko prestatuz.

David Duriesmithek “*Masculinity and New War*” lanean gerren genero azterketa burutu eta iparralde globaleko gizarteetan bereiziko diren maskulinitate militarizatuen zazpi faktore klabe batzen ditu; biolentzia, militarismoa, arrisku hartzea, talde izate edo taldekidetasuna, oldarkortasuna, heterosexualitate oldarkorra eta emozioetarako atxikimendu eza hain zuzen (Duriesmith, 2016). Zazpi faktore hauetan soldaduen gizentasuna frogatuko da momentuoro, feminitate eta bestelako identitateekin alderatuz, eta azken hauek izate ahul bezala azalduz. Horregatik, maskulinitate hegemonikoaren mobilizazioa ezinbesteko baldintza izango da instrukzio militarrean hautemandako balore eta arau guztiak onartzeko.

Elementu guzti hauek barneratzeko, heziketa militarrean deshumanizazio (gizatasun kentze) prozesu gogorak igaro beharko dituzte soldaduek, hauen gorputz eta adimentak moldatuz; beste gizaki talde bat hiltzeko prest egoteko heziz eta jasoko dituen ordena guztiak zalantza izpirik gabe betez (Miralles Crespo, 2016).

Espainiar armadako soldaduari egindako elkarrizketaren bitartez identifikatu daitekenez heziketa militarrek soldaduen zibil izaera ezabatzen du egitura militarren pintzipio eta sozializazio ereduak barneratuko dituelarik.

(E1) “Zibila izateari izten diozu militarra bihurtzeko, edo zenbaki bat izateko, heziketa militarra irautzen duen hile horietan ez zaituelako ezta soldadu kontsideratzen, bandera sinatzen duzun arte zure bizitza infernu bat da”...“txarto pasatzen du batek, baina instrukzioko lau hile horietan topera zaudelako da, nekezia fisiko eta mentala, antsietate nibel handiak, askok pasatzen ez duten filtroa da azkenean”

Prestaketa faseak egitura militarrek barneratzen dituen arau eta jarraibide ezberdinak batzen dituen sozializazio eta ikasketa prozesu sakonak ditu. Halaber, egitura militarren funtzionamenduaren baitan berebiziko bi biolentzia mota aurkituko dira inskribaturik (Gisbert, et al.) :

- Biolentzia ofiziala: Indar armatuak egitura bezala gerrarako prestatzeko ezinbestekoa izango dena. Soldaduak indibidualki zein talde lanean gerrarako prestatzeko burutzen diren kontzeptu eta ariketa tekniko eta taktikoak izango dira;

maniobrak, tiroa, guardiak, arau militarrek, soldaduen arteko banaketa hierarkikoa etab.

- Biolentzia paraleloa: Soldadutzan prestakuntza tekniko militarrekin zerikusirik ez dituzten biolentziak izango dira. Soldaduen arteko gehiegikeriak, hasiberrien burlak, borrokak, emakume militarren eta identitate sexual disidenteen kontrako eraso sexistak etab.

Indarkeria mota hauek mendekotasuneko erlazio batean jardungo dute, hau da biolentzia ofiziala ematen den kasuetan biolentzia paraleloa barneratuta aurkituko da, kontrara berdina gertatuko da. Hala nola, soldaduen arteko gehiegikeriak ematen diren kasuetan edota hasiberrienganako burla eta tratu txarretan hierarkia agintea aurkitzen da inskribaturik. Indarkeria hauek ezinbestekoak dira egitura militarren funtzionamendu eta idiosinkrasia maila ezberdinetan ezarri eta mantentzeko.

Modu honetara, soldadua botere erlazio eta indarkeriaz inguraturiko testuinguru batean heziko da dinamika hauetatik jasotako irakaspen ezberdinak bere gain hartuz. Talde primarioetan emandako bazterketa eta inklusio dinamikek biolentzia ezberdinak legitimatu eta banalizatuko ditu soldaduaren prestakuntza natural bezala. Horrela, indarkeriazko dinamika hauek heziketa militarrean dagoen gizabanakoa soldadu izateko prest dagoen frogatzeko erreminta bezala erabiliko dira, heziketa militarreko ezinbesteko prozesu bezala.

Ildo beretik, sozializazio militarrek, soldaduaren indibidualtasuna deuseztatzea bilatuko du aberriagatik edozer egiteko prest dauden soldaduak prestatzeko helburuarekin. Talde izatea eta soldaduen uniformetasuna soldadutzaren zehar landuko da. Hau da, talde izatea indartzeko soldaduen indibidualtasunen gutxitzea butzatuko da, kolektiboaren garrantzia banakakoaren gaineratik jarriz eta nortasun kolektibo homogeen bat emanez. Honela, talde eksklusibo baten partaide izatearen harrotasuna indartuko da soldaduen arteko lehiakortasuna sustatuz:

(E1) “Lehen egunetan zenbaki bat besterik ez zara, eta bularrean joz, bortizki hitzegiten hurbiltzen dira uneoro nagusiak. Zuk ezin diezu ezta begietara begiratu. Presio momentu horietan zure mugetara eroaten saiatzen dira. ... “Bizitza zibila ahaztarazi nahi dizute, eta ariketa eta aktibitate ezberdinetan huts egiten duenari, hurrengo hutsa talde osoak ordainduko du zigor kolektiboekin. Modu honetara, talde presioak huts egin duenarengan eragingo du, militar izateko hautuaren ideia abandonatzea bultzatuz. Honek talde nortasuna sortuko du ere”.

Talde nortasuna errotzeko prozesu hontan, nazio izatearen identifikazioa indartzearekin batera etsaiaren irudia agertuko da batasun elementu bezala. Hau da, jardun militarren egiteko printzipala defendatutako gizarte mehatxatuko duten elementuekin akabatzea izango da; beste hitz batzuekin esanda, gizartearen etsaiekin akabatzea. Askotan, taldearekiko leialtasuna eta identifikazioa hain da indartsua zein ideologia, estatuarekiko identifikazioa, familia edo haien bizitzak bigarren plano baten uzten dituztela (Pérez de Armiño, 2012).

Gainera talde nortasuna izaera arrazistei gailentzen zaiela ikusi daiteke:

(E1) “Taldean, oso arrazista zen jendea ezagutu dut baina denbora pasata diskurtso arrazistak alde batera uzten dituzte. Gure taldearen kasuan, infanteriakoa izanik danak elkar errespetatzen gara eta familia bat gara. Zuk pentsa azken batean gerrara joanez gero lehen lerroan gauden taldea garela, leku guztietara joaten lehenak bai gara. Lehen lerroan zaudenean zure bizkarra zaintzen zaituenarekin bat zaude. Jendea honetaz ohartzerakoan aurreiritzi arrazista guztiak alboratzen ditu, eta esaten dizute “jo ba ni lehen bastante arrazista nintzen baina hona helduta guztiz aldatu dut pentsaera”

Puntu hontara ailegatuta, bestetasun kontzeptua berriro ere gurera ekarriz, baieztatu daiteke, maskulinitate militarizatu hegemonikoaren eraikuntza estereotipatua beste feminizazioarekin lotuta dagoela. Hau horrela delarik, eragin zuzena izango du emakume eta identitate feminizatuengan (ingurune militarren barne eta kanpo), azpiko izate bezala kontsideratuko direlako (Duncanson, 2009). Honela, maskulinitate militarizatu hegemonikoa elikatuko duen elementu zentral izango da beste feminizatu; gizontasun eredu honetatik gertu dauden soldaduak banaketa hierarkiko militarizatuaren goi mailan egoteko erraztasun handiagoak izango dutelarik. Mendeko maskulinitate eta emakumeak berriz, oztopoz beteriko bidea aurkituko dute egitura hauen barnean.

Aitzik, emakume soldaduak ez dira zerbitzu militar maskulinizatuaren arauak kunplitzeko arazoak dituen kolektibo bakarra, minoria etniko edo sexualak ere arazo handiak aurkituko dituztelako bizitza militarrean. Soldaduen talde primarioak hierarkizatzeke hipermaskulinitatean oinarritutako ezaugarriak izango dira balioetsienak; oldarkortasuna, misoginia, femeninotasunaren desbalorizazioa etab. Testuinguru diziplinario honetan indarkeria izango da erlazio sozial nagusia, egintza ahalmena mugatuko duena besteak beste.

Zentzu honetan, jarrera misogino eta homofoboak heziketa militarren egunerokotasunean ematen dira, maskulinitate militar hegemonikoak eraikitzen dituzten oinarritzko elementu bezala:

(E1) “Beti entzun izan ditut “marikona” bezalako gauzak, “gizonak gustoko dituzu a la zer zabiz begira?” “gay zara ala zer? Defentsa ministeritzatik, lanean emandako xenofobia eta homofobiaren kontrako jazarpena lantzen duen departamentu bat dago eta honek hau galaraztera laguntzen du. Hala ere, egia da heziketa militarrean pertsona bat baino gehiago minduta sentitu daitekela”.

Beraz, maskulinitate militarizatuarenganako asoziazioak, balioespen sozial eta militarra erraztuko duenak, ez ditu emakumeak ezta bestelako identitate sexualak kontuan izango. Hontaz, lan arloan emakume militarrek eta maskulinitate hegemonikotik urruntzen diren zeharkako faktore sozialen bitartez gurutzatutako gorputzek traba handiak izango dituzte egitura militarretan “arrakasta” izan edo balioetsiak izateko. Modu honetara, laneko

jazarpen eta jazarpen sexualerako testuinguru potentzialak bihurtuko ditu ingurune militarrek⁴⁰.

Esan beharra dago, Espainiako gobernuko defentsa ministerioak jazarpen hauei aurre egiteko 2015ean sortutako behatokia⁴¹ baino lehenagoko gertakariak izan zirela. Behatoki honek 2016an 16 prozedura irekiko zituen hauen erdia baino gehiago artxibatuta geratu zirelarik⁴². Honek, bi egitate nagusi erakutsiko dizkigu; lehenik, jazarpen sexualezko alorrak jorratzeko egitura militarren eraginkortasun eza. Eta bestetik, sozializazio militarrek bere baitan duen sexismoaren gaurkotasuna.

5.4 Maskulinitate militarizatuak

Maskulinitate militarizatuak beraz, gizontasunarekin loturiko ezaugarri estereotipatuak zerbitzu militarrekin edo akzio militarrekin lotu daitezkelaren baieztapena dira. 5.3 azpiatalean aipatu bezala, maskulinitate militarizatuak aldatuz joango dira denboraren eta aldaketa sozialen poderioz.

Indar armatuen transnacionalizazio prozesuak nazioartean jardutera eramango ditu soldaduak. Hauek, hegoalde globaleko herrialdeetan piztutako gatazketan parte hartu dute gerra berrien baitan emandako testuinguru ezberdinetan. Honela, iparralde globaleko herrialdeen segurtasun politikak giza segurtasunaz baliatuz atzerrian ekintza militar ezberdinak burutu dituzte. Ekintza militar hauek esku-hartze humanitarioen forma hartu dituzte kasu gehienetan eta korrante kritikoek, ekintza humanitarioen atzean izkutatuta dauden dinamika inperialistak salatu dituzte (Mann, 2012).

Testuinguru honetan, iparralde globaleko indar armatuek indar hertsatzaile bezala jardun dute bestelako herrialdeetako interesen aurrean (Malešević, 2010). Oro har, politika militarista eta inperialisten protagonista diren entitate korporatibo eta estatalek estatu periferiko edo satelite ahulenen baliabideak kontrolatu nahiko dituzte hauen aberastasunaz bereganatzeko (Brewer, 2002).

2. atalean ikusi bezala nazioarteko testuinguru berriek eta segurtasun politiketan emandako aldaketek, indar militarren eta soldaduen jarduna moldatu dute. Honen adibide zuzen da zerbitzu militarren derrigortasunarekin bukatzea. Gobernu gehienek XX. mende amaierararte indarrean izandako politika militarista, hiritartasunaren kontzeptua

⁴⁰ Generozko jazarpen ugariaren salaketak aurkituko dira egitura militarren baitan. David Thovar lur armadatik erretiratutako soldaduak, homosexualitatea onartu eta gero sufritu zituen jazarpen larriak salatu Espainiako armadako beste jazarpen kasu ezagun bat. Edo Zaida Cantero lurreko kapitainarena da, nagusi batengandik jazarpen sexuala sufritu ostean egitura militarren opakotasun eta irmotasunari aurre egin behar izan dio, burokrazia militarren zentzugabekeria eta justizia eza salatuz. https://www.lasexta.com/programas/salvados/mejores-momentos/zaida-cantera-superior-viola-tengo-que-denunciar-superior-traves-superior_2015030957253b1b6584a81fd8831b49.html

⁴¹ <http://www.observatoriodelavidamilitar.es/>

⁴² http://www.observatoriodelavidamilitar.es/doc/memoria_informe_2017.pdf

barneratuta duen politika eta soldadu maskulinoaren eta estatu nazioen eraikuntza zuzenki markatu izan duena (Snyder, 2003).

Iparralde globaleko indar armatuetan maskulinitate militarizatua hiritartasunarekin lotzeko ideia zaharkitua geldituko da soldaduaren profesionaltasuna garatuz doan heinean. Honela, soldadutza lan merkatuaren logika batetara hurbilduko da, aberriaren zerbitzu kontzeptutik aldenduz.

Indar armatuen transnacionalizazio prozesua soldaduen maskulinitateak zeharki markatuko dituen faktorea da. Honela, soldaduek ipar-hego logikaren barne dauden hierarkia eta botere erlazioak erreproduzituko dituzte. Logika hauen barneratzea heziketa militarrean eta prestaketa fasean emango da:

(E1) “Preparatoria deitutako instrukzio batean sartzen zaituzte, Iraken izango duzun lurreratzeko adaptazio prozesu bezala. Porzesu hontan, haien kultura, hizkuntza, etniak eta armamentuzko ikastaroak ematen dizkigute, batuko zaren misioari egokitutako instrukzioa”

Irakeko kasu hartuz eta etsaiaren kontzeptua berriz ere gurera ekarriz, gizon irakiarrak bereganatuko du besteren irudia, elementu arriskutsu eta misoginoaren moldean. Horrela, maskulinitate militarizatu berriak, soldadu zibilizatuarekin lotuko dira, giza eskubideak hirugarren mundura eramango dituen soldadu bakezaleekin hain zuzen. Beraz, soldaduen maskulinitateak hirugarrengo herrialde hauen tokiko herritarrengandik bereiziz eraikiko dira, eta “besteren” irudiarekin indartuko diren eta botere erlazio bertikalez markaturiko maskulinitateak dira:

(E1) “Iraken soldadu eta interpreteekin geunden soilik zibilekin ez genuen ia harremanik” “ Oso alperrak ziren, ume mentalitatea zuteen, eta mendebaldean emakumeek zuten askatasunez hitzegiterakoan asko harritzen ziren, ez zuten ulertzen”

(E1) “Jendea berdin tratatu behar zutela erakusten genien, emakumeekin berdintasuna sustatuz. Haiek, eredu bezala ikusten gaituzte eta modu honetara aldaketa txikiak eragin ditzakezu”

Irakeko gatazka testuinguru hontan misio ezberdinetan egongo diren aktoreak aurkituko dira. Hauen artean Estatubatuetak indar armatuak izango dira eragile esanguratsu eta nagusia: Irakeko gobernuaren aliatu printzipala izanik tokiko aktore armatu ezberdinen kontra borroka zuzena jardun duten soldadu Estatubatuarrak.

Bakegintzarako misioek eta borroka zuzenera bideratutakoek ez dituzte soldaduen gaitasun berdinak exigituko. Horregatik, misioaren arabera soldaduaren oldarkortasun maila moldatuz joango da tokiko herritarrek haiengan izango duen pertzepzioarekin batera:

(E1) “Jende lokalak amerikarren modu ezberdinean ikusten zaitu. Gerra honetara haiekin sartu ginela ahaztu dutela dirudi. Bertan, gerrakoak ez diren gauzak egiten ari bagina bezala hautematen dituzte gure indar armatuak. Hau agian, gure misioak

berreraikitze lanetan zentratu direlako izango da eta ez hainbeste gatazka armatu zuzenean”

(E1) “Pertsonalki nik lagundu ahal izan dudanean, bertokoak lagundu ditut. Oraindik WhatsAppez bidez erlazioa mantentzen dut ezagutu nituen Irakiarrekin. Gu azken batean herriaren garapenean laguntzen gaude, jendea ahaldundu eta haien egonkortasuna atzerriko indar armatu gabe bermaturik egotea”

Beraz, tokiko herritarrekin soldaduen erlazionatzeko modu ezberdinak aurkituko dira. Alde batetik, oldarkorrangoak direnak eta borrokan zentratuan egongo direnak (Estatubaturraen kasua Iraken), eta beste alde batetik berreraikitze lanetan zentratuta dauden soldaduak, oldarkortasun jarrerak bigarren plano baten utzi eta tokiko herritarrekin jarrera enpatiko eta gertukoagoa izango dutenak.

Bestalde segurtasunaren arloko pribatizazio prozesu gorakorarraren eraginez kontratista pribatuen presentzia areagotuko da gerra eta militarizazio testuinguruetan. Honek, egitura militar ofizialetik kanpo eraikiak izango diren maskulinitate militarizatuen agerpena eragingo du. Mertzenarioen formatik gertu dauden eredu hauek -diruarengatik borrokatuko duten soldaduak- merkatu logika barruan eraikiko diren maskulinitate militarizatuak alegia.

Ente militarista pribatu hauek ez dute gizarte edo gobernuen kontrolrik, eta segurtasuna negozio bezala ulertuko dute, logika hauetan generoa edo giza segurtasuna baztertuta agertuko direlarik. Esan beharra dago, segurtasunaren joera pribatizatzaileak nazioarteko herrialdeen hierarkia sendotzea bultzatuko dutela. Egitura pribatu hauek indar militar ofizialekin batera lan egingo dute. Mundu mailan jardungo duten konpainia pribatu militarren agintariza mendebaldeko herrien egoitzetatik emango da, eta hirugarren herrialdeetan burutuko dituzten ekintza eta misioak, hegoalde globalean kokatuko dira (Eichler, 2014).

Soldaduek bereganatu dituzten funtzio berriek maskulinitate berrien agerpenarekin egin du topo. Kontestu honetan, maskulinitate berriak balioespen handiagoa lortzen daude, soldadu bakegilearen irudia indar armatuetan gero eta pisu handiagoa hartzen doalarik. Honela, eskola zaharreko soldadua atzean utziko da maskulinitate militarizatu berriek nazioarteko egituraren baitan hartutako rol berrien eskutik. Hala ere, esan beharra dago eskola zaharreko soldadua oraindik oso balioetsia izango dela armadan, eta soldadu guztiek ez dutela hibridotasun honetan jardungo⁴³. Izan ere, izaera gerlari agresiboa aintzat hartuko diren ezaugarriak izango dira, horregatik argi utzi behar da egitura militarretan prestigio handia dutela izaera hauek, nagusiki izate militarren esentzia direlako.

Hau dela eta, maskulinitate militarizatuek testuinguru ezberdinetan burututako genero biolentzia anitzak kontuan izanik, feminismoak biolentzia hauekin bukatzeko

⁴³ Gerra testuinguruak adibidez izate agresiboagoak eskatuko dituzte

maskulinitate militarizatuekin “zer egin” behar den eztabaidatuko dute, maskulinitate militarizatuek genero berdintasunezko jarrerak barneratu ahal badituzten planteatuz.

Eztabaida honetan bi ikuspegi nagusi agertzen dira: Parekidetasunezko erlazioak erreproduzitzen, maskulinitate militarizatu oldarkorrek maskulinitate bigunago eta enpatikoagoetan transformatu daitekezala baieztatzen dutenak. Eta maskulinitate militarizatuen transformaketa demokratikoan sinisten ez duten feminista antimilitaristak, gizartearen desmilitarizazioa defendatuko dutenak. Azken hauek militarismoak patriarkatuaren egitura eta biolentziak barneratuta dituela argudiatzen dute, patriarkatu-militarismo erlazioa banaezina dela hizpide izanik.

Maskulinitate militarizatuen demokratizazioa defendatzen duen korronteak, izaera enpatiko eta ulerkorrek erreproduzitu dituzten soldaduen adibideak hartzen ditu erreferentzia bezala. Hauek, bake misioetan tokiko herritarrekin soldaduek izan dituzten erlazioetan botere balantza mailakatzen dela baieztatzen dute hartuemanak demokratizatuz (Duncanson, 2009).

Errespetuan eta enpatian erlazioentzako diren soldadu hauek indar armatuetan agertuko diren genero erlazio hierarkioak murrizteko duten ahalmena nabarmenduko da, genero dikotomia hierarkikoak desafiatuko dituela argudiatuz. Ikuspuntu honen aburutan, maskulinitate demokratiko eta bakegileen goraipamena ezinbestekoa da genero dikotomia hierarkikoak desafiatzeko eta maskulinitate militarizatu oldarkorrekin bukatzeko (Duncanson, 2009).

Feminismo antimilitaristaren partetik soldaduek bake eragile bezala duten papera zalantzan jartzen dute, izate militarrek genero erlazio parekideak barneratzea ezinezkoa dutela argudiatuz (Eichler, 2014). Korronte honek, bakearen mantentzeaz arduratzen diren soldaduen maskulinitate militarizatuen alderdi agresibo eta oldarkorrek izan duten eragin eta zentralitatea nabarmenduko du. Izate militarista hauek emakume eta gizarte zibilaren kontrako biolentzietan zentratuz. Halaber, ikuspuntu antimilitaristaren aburuz maskulinitate militarizatu bakezaleak gizonen hegemoniaren erreprodukzio bigunagoen ereduak dira. Azken batean, maskulinitate militarizatu bakezale hauek militaristak izaten jarraituko dutela argudiatuko da, botere logika hierarkikoak erreproduzitzen.

Hontaz, maskulinitate militarizatuak transformatzeko erarik eraginkorra maskulinitatearen desmilitarizazioa dela berrestuen dute. Honela, militarismoa errefusatzeko duen sujetua bakarrik izango da kapaz bake eragile eraginkorra izateko (biolentziarik produzitu gabe) (Withworth, 2004). Honetarako, korronte antimilitaristak gizartearen desmilitarizazioa defendatzen du, eremu sozial ezberdinetan erreproduzitu diren maskulinitate zein feminitate militarizatuekin bukatzea bultzatuz.

Aipatu beharra dago, nazioarteko ipar-hego egituran botere erlazio doikuntza bat ematen denean, iparralde globaleko herrialdeek botere galera sufrizten dutenean hain zuzen, indar armatuen izaera hertsatsailea bortitzago bihurtuko dela, biolentziaren erabilera boterea

berreskuratzeko erraminta bilakatuz⁴⁴. Kontestu honetan, militarizazio prozesuak oldartuko dira militarismoaren eta maskulinitate oldarkorren baloreak indartuz, eta maskulinitate militarizatu bakezaleak bigarren plano batean utziz. Azken batean, izate bakezaleak ezingo dute momentuak haiengatik espero duena erreproduzitu, ondorioz dute kabidarik izango gatazka testuinguru bortitz eta oldarkorretan.

Beraz, iparralde globaleko maskulinitate militarizatuak nazioarteko botere dinamikei loturik dauden elementuak dira eta testuinguru bakoitzak haiengandik eskatuko duena erreproduzitu dute eta indar militarren egitekoaren arabera hezituko dira soldaduak. Soldaduen maskulinitate anitz hauek misioaren arabera bake edo gerra baloreak gradu ezberdinetan barneratuz eta soldaduen talde ezeberdinen identitatea misioaren inguruan egituratuz.

⁴⁴ Adibide bezala AEBk burutu izan dituen ekintza armatu zuzenak.

6. ONDORIOAK

Lan honetan, maskulinitate militarizatuen analisia bideratu da nazioartean segurtasunaren garapenaren eskutik emandako aldaketa ezberdinek kultura militarrean eta soldaduen maskulinitateetan izan dituen eraginak ikusteko.

Lanean bi ondorio nagusi aurkitu dira: lehena, hipotesia berretsiz soldaduek eragindako biolentzia ezberdinak patriarkatuaren eta militarismoaren ondorio zuzenak direla. Eta bigarrena, aldaketa politiko, sozial eta teknologikoak emanagatik ere, iparralde globaleko soldaduen irudia oraindik maskulinitate hegemonikoekin lotura zuzena gordetzen duela.

Lehen ondorioari dagokionean, lanean zehar sakonean azalduko patriarkatuaren eta militarismoaren arteko erlazioa kontuan izanda, hurrengo baieztapena ekarri nahiko nuke gurera; gerra berez genero biolentzia dela, patriarkatu-militarismo erlazioa banaezina betiketuko duena (Ford, 2011).

Honen harira, patriarkatua eta militarismoak dituen hartuemanak landu eta erlazio honek utzitako biolentziatzeko arrastoak ikusi dira. Gerra testuinguruetan ematen diren biolentziak mantentzen duten genero patroia argiekin, eta biolentzien *continuum*-aren ondorioekin esaterako. Zentzu honetan garrantzitsua da kontuan izatea, gero eta testuinguru militarizatuago batean egon, generoarengatik gurutzaturiko biolentziak lastuko direla.

Bigarren ondorioari dagokionez, maskulinitate militarizatu hegemonikoekin soldaduek mantentzen duten lotura azaltzeko, posizio hegemoniko hauek non kokatzen diren azaldu behar dugu. Connellek definitu bezala, maskulinitate hegemonikoa konstanteki aldatzen dagoen eta boterea modu ikusezinean mantentzen duen elementua da, gainerako maskulinitate normatiboek botere hau bermatzen lagunduko diotelarik (Connell, 2013).

Hontaz, iparralde globaleko maskulinitate hegemoniko militarizatu botere esferetan murgilduko den gizona dugu, interes talde politiko eta ekonomiko opaku handien inguruan mugitzen dena. Hauek, hegemonian mantentzeko, duten indar eta influentziaz baliatuz, ez dute bide militarra erabiltzeko zalantzarik izango. Kontestu honetan, soldaduak maskulinitate hegemonikoaren ahalmen militarren giharra dira eta militarismoak emango dien botere kuotaz baliatuko dira haien egunerokoan emango diren erlazio ezberdinetan. Hala ere, ez dituzte inoiz hegemonia maneatzen den botere esferak ukituko.

Arrazoi honengatik, feminismoen barnean maskulinitate militarizatuez dagoen eztabaida kontuan hartuz, botere erlazio parekideak sostengatzeko desmilitarizazioa izango da irtenbide bakarra, maskulinitate militarizatu hegemonikoaren indar hertsatsailea, hau da soldadu eta gitura militarrek, bertan behera utziz.

Soldadu bakezaleek, demokrazia liberaletan txertaturik dauden interesak defendatuko dituztela kontuan izanik (maskulinitate hegemoniko militarizatuena), esku-hartzeetan

tokiko gizarteekin soldaduek duten harremanetan botere erlazio sakon bat egongo da markaturik.

Hau da, soldadu bakezaleek nazioarteko ipar-hego egituraren botere erlazioak erreproduzitzen dituzte, eta izaera demokratikoago edo enpatikoagoak iruditu arren gizarte logika hierarkiko argi bati erantzuten diote.

Honenbestez, maskulinitate militarizatuen transformaketa bultzatzen dutenek ez dute hurrengo faktorea kontuan izango: soldaduen maskulinitate militarizatuak (bigun zein oldarkorrek) haiengandik espero dena erreproduzitzen dutela, erlazio hauetan uneoro botere kuota mantenduz. Azken batean, maskulinitate militarizatu bigunago bat izateak ez ditu botere erlazioak orekatuko, besterik gabe dominazio formak aldatuko ditu. Beraz, maskulinitate militarizatuen botere erlazioak alde batera utzi eta misio militarretan berdintasun terminoetan jarduteko nazioarteko sistemako asimetriarekin bukatu beharko litzakete.

Hau horrela izanik, ukaezina da soldaduaren maskulinitateen eraikuntzan indibidualtasunak ere bere indarra izango duela. Horregatik, bake misioetarako prestatutako taldeetan maskulinitate oldarkorren erreprodukzioak aurkituko dira, talde izatetik aldenduko direnak. Honen adierazle izango dira nazioarteko bake misio ezberdinetan soldaduen partetik emandako eraso sexual anitzak, hauek patriarkatu eta militarismoaren adierazpen latzenak izango dira. Kontestu militarizatu hauetan emandako eraso sexual ezberdinek, talde izatea jarrera bakezaleetatik urrundu eta jarrera oldarkorrek naturalizatu eta barneratuko dituzte. Finean, bake misioetan sustatutako talde izate bakezalearen presioek ezin izan dituzte maskulinitate militarizatu oldarkorren presentzia baliogabetu, eta kontrara, izaera biolento hauek onartzen bukatuko dute.

Hontaz, gizarteak barneratuta dituen forma militarizatu ezberdinak desmilitarizatzea ezinbestekoa izango da botere erlazio gabeko eta errespetuzko formak erreproduzitu dituzten maskulinitateak gizarteko eredu nagusi bihurtzeko. Honez gain, maskulinitate militarizatuak progresiboki biguntzen eta hobetzen joango direlaren usteak, logika neoliberaletan txertaturik dagoen garapen kontzeptua du barneratuta; garapen ekonomikoaren eskutik aurrerapen sozialak emango direlaren ustea hain zuzen. Garapenaren logika lineal honek muga argiak ditu berdintasunezko kontestu batetara heltzea lortu nahi bada, eta ez du kontuan izango gizartean, militarizazio prozesu gogorak eman ahalko direla genero izaera estereotipatuak butzatuz eta erlazio hierarkikoak zorrotzuz eta normalizatuz.

Ondorioekin bukatzeko feminismoak indar armatuak eraldatzeko ahaleginetan laguntzen jarraitzea ezinbestekoa dela azpimarratu nahiko nuke. Erronka honetan, indar militarren egitekoaren eta hauek barneratuta duten genero orden patriarkalei aurre egitean, militarismoa eta generoaren arteko erlazioa zalantzan jartzeko espazioa ireki eta eztabaida bestelako eremu ezberdinetara eramateko aukera ekarri dezake, gizarte zibilean erreproduzitutako maskulinitate militarizatuak aztertzerako esaterako.

7. BIBLIOGRAFIA

- Allen, Amy. (1998). Rethinking power. *Hypatia*, 13(1), 21-40.
- Azpiazu, Jokin. (2017): “Masculinidades y feminismo”, Virus.
- Balbo, Marcelo., & Guadagnoli, Giulia. United Nations Trust Fund for Human Security Projects implemented by UN-Habitat in Afghanistan, Cambodia and Sri Lanka.
- Baldwin, David. A. (1997). The concept of security. *Review of international studies*, 23(1), 5-26.
- Baquer, Miguel. Alonso. (1987). Tres modelos de integración: institucional, ocupacional, híbrido. *Boletín de Información*, (199), 4.
- Barbé Izuel, María. Esther. (1995). Política exterior y de defensa: análisis de las grandes fracturas en el proceso de construcción europea.
- Barbé, Esther. (1987). El papel del realismo en las relaciones internacionales: (la teoría política internacional de Hans J. Morgenthau). *Revista de estudios políticos*, (57), 149-176.
- Barkawi, Tarak., & Laffey, Mark. (2006). The postcolonial moment in security studies. *Review of International Studies*, 32(2), 329-352.
- Beauvoir, Simone. (2000). *El segundo sexo*. Volumen I. Los hechos y los mitos. Cátedra.
- Blanchard, Eric. (2003). Gender, international relations, and the development of feminist security theory. *Signs: Journal of Women in Culture and Society*, 28(4), 1289-1312.
- Boggs, Carl. (2012). *Empire versus democracy: The triumph of corporate and military power*. Routledge.

- Bonet i Martí, Jordi. (2021). Reseña de AA. VV. Otras formas de (des) aprender, investigación feminista en tiempos de violencia, resistencias y decolonialidad (2019). Bilbao: Hegoa-Universidad del País Vasco [Ressenya de llibre]. *Empiria. Revista de Metodología de las Ciencias Sociales*, 2021, num. 50, p. 203-206.
- Booth, Bradford., Kestnbaum, Meyer., & Segal, David. (2001). Are post-Cold War militaries postmodern?. *Armed Forces & Society*, 27(3), 319-342.
- Bourdieu, Pierre. (1997). *Razones prácticas. Sobre la teoría de la acción*. Editorial Anagrama.
- Bourdieu, Pierre. (1989). Social space and symbolic power. *Sociological theory*, 7(1), 14-25. In, *Sociological Theory*, v. 7, nº1, pp. 14-25.
- Brewer, Tony. (2002). *Marxist theories of imperialism: A critical survey*. Routledge.
- Burk, James. (2002). Theories of democratic civil-military relations. *Armed Forces & Society*, 29(1), 7-29.
- Buzan, Barry. (1995). The level of analysis problem in international relations reconsidered. *International relations theory today*, 198-216.
- Buzan, Barry. (2008). *People, states & fear: an agenda for international security studies in the post-cold war era*. Ecpr Press.
- Buzan, Barry., & Hansen, Lene. (2009). *The evolution of international security studies*. Cambridge University Press.
- Buzan, Barry., & Herring, Eric. (1998). *The arms dynamic in world politics*. Lynne Rienner Publishers.
- Buzan, Barry., & Little, Richard. (2000). *International systems in world history: remaking the study of international relations*.
- Buzan, Barry., Wæver, Ole., & De Wilde, Jaap. (1998). *Security: A new framework for analysis*. Lynne Rienner Publishers.

- Cala, Mauricio. (2019). Calvo Rufanges, Jordi (coord.). *Mentes militarizadas. Como nos educan para asumir la guerra y la violencia*. Barcelona: Icaria, 2016, 144 páginas. *Anuario de Historia Regional y de las Fronteras*, 24(1), 204-207.
- Canclini, Nestor. García. (1984). Gramsci con Bourdieu. Hegemonía, consumo y nuevas formas de organización popular. *Nueva sociedad*, 71, 69-78.
- Cardona, Diego. (2001). El impacto de los acontecimientos del 11 de septiembre en el sistema internacional. *Desafíos*, 4, 7-36.
- Carreiras, Helena. (2004). Gender and the military: a comparative study of the participation of women in the Armed Forces of western democracies.
- Chandler, David. (2012). Resilience and human security: The post-interventionist paradigm. *Security dialogue*, 43(3), 213-229.
- Cockburn, Cynthia. (2010). Gender relations as causal in militarization and war: A feminist standpoint. *International Feminist Journal of Politics*, 12(2), 139-157.
- Cockburn, Cynthia. (2013). War and security, women and gender: an overview of the issues. *Gender & Development*, 21(3), 433-452.
- Cohen, Eliot. (1996). A Revolution in Warfare. *Foreign Affairs*, 75(2) 37–54. Cohen, Stuart. (1997) Towards a New Portrait of the (New) Israeli Soldier, *Israeli Affairs*, 3(3 and 4) 77–117.
- Cohn, Carol. (2000). How Can She Claim Equal Rights when She Doesn't Have to Do as Many Push-ups as I Do? The Framing of Men's Op
- Commission on Global Governance. (1995). *Our global neighbourhood: the report of the Commission on Global Governance*. Oxford University Press.
- Connell, Raewyn. W. (1995). *Masculinities*. Berkeley: University of California Press.
- Connell, Raewyn. W. (2015). Masculinidades (pp. 101-122). Universidad Nacional Autónoma de México, Programa Universitario de Estudios de Género.

- Cornago, Noe. (2013). Breviario del postestructuralismo para internacionalistas.
- Dandeker, Christopher. (1994). New times for the military: Some sociological remarks on the changing role and structure of the armed forces of the advanced societies. *British journal of sociology*, 637-654.
- Dandeker, Christopher., & Segal, Mady. Wechsler. (1996). Gender integration in armed forces: Recent policy
- De Lluc Bagur, María., & Ribes, Elisenda. (2019). Aculturación y Purplewashing en el Ejército Español. Un estudio sobre las mujeres símbolo. Barcelona: Centre Delàs d'Estudis per la Pau.
- De Paula, Gabriel. (2008). Intervenciones armadas y estrategias de seguridad internacional en perspectiva comparada: Nuevo orden mundial y el período pos 11 de septiembre. *Revista Política y Estrategia*, (110), 69-88.
- De Vergottini, G., & Campo, J. J. (1982). La supremacía del poder civil sobre el poder militar en las primeras constituciones liberales europeas. *Revista Española de Derecho Constitucional*, (6), 9-33.
- DiMaggio, Paul., & Powell, Walter. (1983). The Iron Cage Revisited: Institutional Isomorphism and Collective Rationality in Organizational Fields, *American Sociological Review*, 48, 147–160.
- Duffield, Mark. (2007). Development, security and unending war: governing the world of peoples. *Polity*.
- Duncanson, Claire. (2009). Forces for good? Narratives of military masculinity in peace-keeping operations. *International Feminist Journal of Politics*, 11(1), 63-80.
- Duncanson, Claire., & Woodward, Rachel. (2016). Regendering the military: Theorizing women's military participation. *Security dialogue*, 47(1), 3-21.
- Duriesmith, David. (2016). *Masculinity and New War: The gendered dynamics of contemporary armed conflict*. Routledge.

- Eichler, Maya. (2013). Women and combat in Canada: continuing tensions between ‘difference’ and ‘equality’. *Critical Studies on Security*, 1(2), 257-259.
- Eichler, Maya. (2014). Militarized masculinities in international relations. *Brown J. World Aff.*, 21, 81.
- Enloe, Cynthia. (1988). *Does Khaki Become You? The Militarisation of Women's Lives*. Londres, NY.
- Enloe, Cynthia. (2000). *Maneuvers*. In *Maneuvers*. University of California Press.
- Enloe, Cynthia. (2007). *Militarism and Globalization: Feminists Make the Link*.
- Espitia Pérez, Luisa. Fernanda. (2018). La relación entre el patriarcado y el militarismo en la política de defensa y seguridad democrática (2002-2004). *Escuela de Estudios de Género*.
- Fazio Vengoa, Hugo. (2002). *La globalización en su historia*, Bogotá, Universidad Nacional de Colombia, 45-56.
- Ford, Kieran. (2011). Should we regard gender-based violence as a weapon of war?.
- Forigua Rojas, Emersson. (2006). Las nuevas guerras: un enfoque desde las estructuras organizacionales. *Papel político*, 11(1), 305-352.
- Forte, D. (2007). Violaciones de derechos humanos por integrantes de las misiones de paz de la ONU. *Papeles N°96*. https://www.fuhem.es/papeles_articulo/violaciones-de-derechos-humanos-por-integrantes-de-las-misiones-de-paz-de-la-onu/
- Friis, Karsten. (2005). *The State, the People and the Armed Forces—a Genealogical Outline of the Legitimacy of the Armed Forces in Norway*.
- Fukuyama, Francis. (2006). *The end of history and the last man*. Simon and Schuster. in Buzan, Barry., & Hansen, Lene. (2009). *The evolution of international security studies*. Cambridge University Press.

- Fundación PorCausa (2021). *FRONTEX: EL GUARDIÁN DESCONTROLADO*. Informe 2021.
- Galindo Rodríguez, Fernando. (2013). Enfoques postcoloniales en Relaciones Internacionales: un breve recorrido por sus debates y sus desarrollos teóricos. *Relaciones Internacionales*.
- Gentry, Caron. E., Shepherd, Laura. J., & Sjoberg, Laura. (Eds.). (2018). *The Routledge handbook of gender and security*. London: Routledge.
- Giraldo, F. U., & Quílez, P. Q. (2000). Jóvenes negros de barriadas populares en Cali: entre masculinidades hegemónicas y marginales. Centro de Investigación y Documentación Socioeconómica, Facultad de Ciencias Sociales y Económicas, Universidad del Valle, Cali.
- Gisbert, T., Noguera, J. A., Adelantado, J., Rambla, X., González, I., & Mora, M. (d.g.). *Silencis les violències paraleles a les forces armades*. Proyecto Silencios.
- Goikoetxea, Jule. (2015.eko Urriak 7). Emakumeen mundu gatazka. *Berria*.
- Gómez, José. Francisco. Esteban., & Martini, Alice. (2015). La alteridad en las Relaciones Internacionales. *Relaciones internacionales: Revista académica cuatrimestral de publicación electrónica*, (29), 5-9.
- Grewal, Baljit. Singh. (2003). Johan Galtung: Positive and negative peace. *School of social science, Auckland University of technology*, 30, 23-26.
- Halberstam, Judith. (1998). 7. Drag Kings: Masculinity and Performance. In *Female masculinity* (pp. 231-266). Duke University Press.
- Haltiner, Karl. W. (1998). The definite end of the mass army in Western Europe?. *Armed Forces & Society*, 25(1), 7-36.
- Hearn, Jeff. (2004). From hegemonic masculinity to the hegemony of men. *Feminist theory*, 5(1), 49-72.
- Heinecken, Lindy. (2003). Facing a Merciless Enemy: 1W/AIDS and the South African Armed Forces. *Armed Forces & Society*, 29(2), 281-300.

- Hobson, J. M. (2007). Reconstructing international relations through world history: Oriental globalization and the global–dialogic conception of inter-civilizational relations. *International Politics*, 44(4), 414-430.
- Huertas Díaz, Omar., Torres Vásquez, Henry., & Díaz Pérez, Nidya. Cecilia. (2011). El leviatán de los mass media, el peligro de la otredad y el derecho penal: La construcción mediática del enemigo. *Revista de Derecho*, (35), 96-117.
- Kaldor, Mary. (2010). *El poder y la fuerza. La seguridad de la población civil en un mundo global*, Barcelona: Tusquet, 201.
- Keohane, Robert. O., & Nye, Joseph. S. (1988). Poder e interdependencia. In Cardona, Diego., Duarte, Ivonne., & Jiménez, Nathaly. (2004). *La estrategia de seguridad nacional de Estados Unidos en la administración Bush: una lectura desde América Latina*. Encrucijadas de la Seguridad en Europa y las Américas, 193-194.
- Kettell, Steven. (2006). *Dirty politics?: New Labour, British democracy and the invasion of Iraq*. Zed Books.
- Krause, Keith., & Williams, Michael. Charles. (1996). Broadening the agenda of security studies: Politics and methods. *Mershon international studies review*, 40(Supplement_2), 229-254.
- Laborie, Mario. (2017). Afghanistan and Syria: Nonstate Actors and Their Negative Impact on Human Security. In *Public International Law and Human Rights Violations by Private Military and Security Companies* (pp. 7-29). Springer, Cham.
- MacKenzie, Megan. H. (2013). Women in combat: beyond ‘can they?’ or ‘should they?’: Introduction. *Critical Studies on Security*, 1(2), 239-242.
- Malešević, Siniša. (2010). *The Sociology of War and Violence*. Cambridge: Cambridge University Press.
- Mann, Michael. (2012). *The sources of social power: volume 2, the rise of classes and nation-states, 1760-1914 (Vol. 2)*. Cambridge University Press.

- Martínez-Restrepo, Susana. et al. (2021). El continuum de las violencias basadas en género en el contexto del conflicto armado colombiano y su relación con el empoderamiento económico de las sobrevivientes. Bogotá: IDRC, Fedesarrollo & CoreWoman. 65 p.
- Meinderts, Tom. (2020). *Intermestic Realism: Domestic Considerations in International Relations*.
- Meler, Irene., & Burin, Mabel. (2000). Género: Una herramienta de estudio de la subjetividad masculina. En *Varones: Género y subjetividad masculina*. Argentina: Paidó
- Mendia, Irantzu. (2008). Estrategias de organizaciones de mujeres para una paz con justicia de género. Bilbao: Hegoa.
- Mercado, Angélica. (2015). El discurso en las relaciones internacionales durante la primera fase de la Guerra Fría (1946-1953). *TEMPUS Revista en Historia General*, (1), 90-105.
- Miralles Crespo, Nora. (2016). *Género y Cultura Milita: vidas cuerpos y control social bajo la guerra*. Centre Delàs D'estudis Per la Pau.
- Moller, Bjorn. (2000). Seguridad Nacional, Societal y Humana: El marco general y el caso de los Balcanes. *Revista Fuerzas Armadas y Sociedad*, 4, 3-28. <https://biblioteca.cejamericas.org/bitstream/handle/2015/3405/Art.pdf?sequence=1&isAllowed=y>
- Montero, L. A. (2020). *Seguridad y Defensa I*. Escuela Superior de Guerra General Rafael Reyes Prieto. Planeta.
- Moral Revilla, Antonio. (2019). *La responsabilidad de proteger: de la retórica a la práctica. Retos para su aplicación*. Monografías 154. Escuela Superior de las Fuerzas Armadas.

- Moskos, Charles. C. (1985). La nueva organización militar: ¿ institucional, ocupacional o plural?. In *La institución militar en el Estado contemporáneo* (pp. 140-152). Alianza.
- Murguialday, Clara., Pérez, Karlos., & Eizagirre, Marlen. (2000). *Diccionario de acción humanitaria y cooperación al desarrollo*. Bilbao/Barcelona: Icaria Editorial, Hegoa, Facultad de Ciencias Económicas, Universidad del País Vasco.
- Nibeyro, Ricardo. (2015). *Las nuevas guerras en perspectiva clásica. Continuidad y cambio en los conflictos armados postmodernos*.
- Nordstrom, Carolyn. (2004). *Shadows of War: Violence, Power, and International profiteering in the Twenty First Century*. Londres: Regents of the University of California.
- Peña, M. Luz. H. P. (2002). Mary Kaldor. Las nuevas guerras. *Violencia organizada en la era global*. Anduli: revista andaluza de ciencias sociales, (1), 140.
- Pérez de Armiño, Karlos. (2012). ¿ Más allá de la seguridad humana? Desafíos y aportes de los estudios críticos de seguridad. *Cursos de derecho internacional y relaciones internacionales de Vitoria-Gasteiz= Vitoria-Gasteizko nazioarteko zuzenbide eta nazioarteko herremanen ikastaroak*, (1), 235-308.
- Pérez-Rincón, Socorro., Vives, Antoni., García, Asun., & Expósito, Carme. (2012). Reproducción de la Otrredad inmigrante en Barcelona y recepción popular des espacio urbano representado como 'gueto'. *Revista de Ciencias Sociales*, 2012, num. 29, p. 160-182.
- Pichardo, Graciela. A. (1998). *Hacia nuevos paradigmas en las Relaciones Internacionales*. *Política y Cultura*, (10), 35-45.
- Pullinger, Stephen. (2007). *Revising the European Security Strategy: Building a secure Europe in a better world*. *European Security Review*, 35, 1-4.

- Richmond, Oliver. P. (2010). Post-colonial hybridity and the return of human security. *Critical Perspectives on Human Security: Rethinking Emancipation and Power in International Relations*. Oxon: Routledge.
- Rojas, D. Marcela. (2004). La historia y las relaciones internacionales: de la historia internacional a la historia global. *Historia crítica*, (27), 153-163.
- Rosenau, James. (2009). Governance in the Twenty-first Century. In *Palgrave Advances in Global Governance* (pp. 7-40). Palgrave Macmillan.
- Said, Edward. (2016). Orientalism. In *Social Theory Re-Wired* (pp. 402-417). Routledge.
- Sánchez, Fabio., Liendo, Nicolas. (2018). Estudios y tendencias de la política y las relaciones internacionales.
- Schongut, Nicolas. (2012). La construcción social de la masculinidad: poder, hegemonía y violencia. *Bartzelona: Universidad Autónoma de Barcelona Historia*.
- Segato, R. Laura. (2014). Las nuevas formas de la guerra y el cuerpo de las mujeres. *Sociedade e Estado*, 29(2), 341-371.
- Snyder, R. Claire. (2003). The citizen-soldier tradition and gender integration of the US military. *Armed Forces & Society*, 29(2), 185-204.
- Sookermany, Aanders. Mcd. (2013). On developing (post) modern soldiers: An inquiry into the ontological and epistemological foundation of skill-acquisition in an age of military transformation.
- Stiehm, Judith. (1989). *Arms and the enlisted woman*. Temple University Press.
- Swaine, Aisling., Spearing, Michelle., Murphy, Maureen., & Contreras-Urbina, Manuel. (2019). Exploring the intersection of violence against women and girls with post-conflict statebuilding and peacebuilding processes: A new analytical framework. *Journal of Peacebuilding & Development*, 14(1), 3-21.
- Taureck, Rita. (2006). Securitization theory and securitization studies. *Journal of International relations and Development*, 9(1), 53-61.

- Tello, Susana. (2011). Revisando la securitización de la agenda internacional: la normalización de las políticas del pánico. Relaciones internacionales.
- Tickner, J. Ann. (1992). Gender in international relations: Feminist perspectives on achieving global security. Columbia University Press.
- Tilly, Charlers. (2013). The contentious french. In *The Contentious French*. Harvard University Press.
- Tilly, Charles. (1995). "To Explain Political Processes". *American Journal of Sociology*, 100(6), 1594-1610. in, *Montero Seguridad Y Defensa*
- United Nations Trust Fund for Human Security (2005) *Peace and Conflict Prevention: Human Security*
- Vázquez, Alberto Lozano (2012). El Feminismo en la teoría de Relaciones Internacionales: un breve repaso. *Revista de Relaciones Internacionales de la UNAM*, (114), 143-152.
- Wæver, Ole. (1993). *Securitization and desecuritization* (p. 48). Copenhagen: Centre for Peace and Conflict Research.
- Whitworth, Sandra. (2004). *Men, militarism, and UN peacekeeping: A gendered analysis*. Lynne Rienner Publishers.
- Yuval-Davis, Nuria. (1996, January). Women and the biological reproduction of "the nation". In *Women's studies international forum* (Vol. 19, No. 1-2, pp. 17-24). Pergamon.

Web Guneetako erreferentziak

- Dalton, S., & Martínez, M. (2004). *La sierra*. First Run Features. <https://www.youtube.com/watch?v=j2qWvrWKTAQ>
- Filigrana, P. (2020). El patriarcado es solo uno, y es blanco y occidental. *Pikara Magazin*.

<https://www.pikaramagazine.com/2020/07/el-patriarcado-es-solo-uno-y-es-blanco-y-occidental/>

Ministerio de Defensa de España (2019). “Patricia Ortega, primera mujer que asciende a general en la historia de España”. <https://www.defensa.gob.es/gabinete/notas-Prensa/2019/07/DGC-190712-general-ortega.html>

Ministerio de Defensa de España. (2017). Memoria Informe, Observatorio de la vida militar. http://www.observatoriodelavidamilitar.es/doc/memoria_informe_2017.pdf

Ministerio de Defensa de España. (2021). Día de la mujer. <https://www.youtube.com/watch?v=vYsc719COH0&t=1s>

Nazio Batuetako eskutitza VI. Kapituluua, 33. artikulua: Arreglo pacífico de ñas controversias. <https://www.un.org/es/about-us/un-charter/Chapter-6>

Parera, B. (2020). El general de hierro que quería acabar con los lunes. El Confidencial https://www.elconfidencial.com/espana/2020-04-12/el-general-de-hierro-que-queria-acabar-con-los-lunes_2543023/

Real Academia Española. (d.g.). Cultura. En Diccionario de la lengua española.

Salvados La Sexta (2015eko martxoak 9). Zaida Cantera: "Si mi superior me viola, tengo que denunciar a mi superior a través de mi superior. LaSexta.com https://www.la-sexta.com/programas/salvados/mejores-momentos/zaida-cantera-superior-viola-tengo-que-denunciar-superior-traves-superior_2015030957253b1b6584a81fd8831b49.html

Salvados La Sexta (2015eko martxoak 9). Zaida Cantera: "Si mi superior me viola, tengo que denunciar a mi superior a través de mi superior. LaSexta.com https://www.la-sexta.com/programas/salvados/mejores-momentos/zaida-cantera-superior-viola-tengo-que-denunciar-superior-traves-superior_2015030957253b1b6584a81fd8831b49.html

The Guardian News. (2019). “Gillette's 'We believe: the best men can be' razors commercial takes on toxic masculinity” https://www.youtube.com/watch?v=UYaY2Kb_PKI

United Nations Development Programme (1993) Human Development Report.

<https://www.un-ilibrary.org/content/books/9789210576543>